

2024

URTEKARIA

BUSTURALDEKO
HITZA

busturaldea.hitza.eus



cues

Especialistas en Audiología

www.cuesaudiologia.com

Zure neurrira egindako entzunaldia

cues
Miriam

Miriam Azkue
Audiologo
Zuzendaria

Zure audifonoak *

45€ tik
aurrera hilean

Proba
dezazu
dohainik

**Gernikan eta Barakaldon
Zentroak**

**Iparragirre Kalea, 16 - Gernika
Tel. 946 963 135**

**Bizkaia Kalea, 5 - Barakaldo
Tel. 944 385 301**

*Zentroan kontsultatzeko
Ereduak
R.P.S. nº100/21

Bat eginda



AINTZINA MONASTERIO MAGUREGI
LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA
BUSTURIALDEKO HITZAREN ZUZENDARIA

Urtekaria atzera begiratzea da, atzera begirako ariketa. Urteko errepasoa egitea ez da erraza inorentzat, esan, idatzi, bizi eta sentitutakoak asko eta askotarikoak baitira.

Euskararen Eguna, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna, Umeen eta Nerabeen Kontrako Sexu Abusuen Prebentziorako Eguna... joan dira. Nazioarteko egunez beteta ei dago egutegia, asko ohar-kabea da; beste batzuk, gorritz baino, beltzez markatuta ditugu.

Ospakizun, aitortza, kexa, kezka zein salaketak bildu ditugu egunero. Horren isla ere bada urtekaria. Euskararen arnaguneak dira gure udalerrriak, baina arnas faltaren marruak entzuten hasi gara. Euskara «larrialdi linguistikoa» dagoela dio

Europako hizkuntza gutxituen sa-reak, eta indarrean diren joera soziolinguistikoa eta egiturazko arazoak itzulikatzeak neurri egokiak epe laburrean hartu ezean, atzeraldia datorrela ohartarazi dute. Hizkuntza larrialdiei aurre egiteko, arnaguneak zaindu eta indartzeak duen garrantzia nabarmendu dute. Gurean ere, kezka nabaria da. Euskara sustatzeko planak lantzen ari dira hainbat udal, Uemagaz elkarlanean, eta herritarren parte-hartzea «ezinbestekotzat» dute. Bertoko herritarrak ere arduratuta daude, eta zenbait euskara talde sortu dituzte 2024an. Euskararen erabilera «nabarmen jaitsi» dela antzeman dute.

Osakidetzaren egoeratik ere kezka azaleratu dute han-hemen. Lehen arretako osasun zentro zein

ospitaleetako langileak entzun ditugu. Euren zein herritarren eskari eta salaketak jaso ditugu. Egiturazko neurriak hartzea lehenetasuna dela helarazi diote Osasun sailari.

Aldarrikapenen leiho zabala da gurea, ahots askoren bozgorailu. Gizartea, kultura, ingurumena, kirola, euskara... gai asko landu ditugu 2024an ere, herriak, eskualdeak bizi-rik ditugun seinale. Baina biziago nahi ditugu. Osasuntsu nahi ditugu.

Espazio hau txiki geratu zait esan behar edo gura nituzkeen denak esateko. Baina zuek esateko asko duzue, eta eskualdeko eragile, sortzaile, kirolariek... diotena eta egiten dutena ezagutzeko, gure egunkaria egunero irakurtzeko gonbita luzatzen dizuegu. Eskerrik asko, eta segi bertokoa, gertukoa zaintzen.

Argitaratzailea: **Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.**
Lege Gordailua: **BI-02083-2021**

Egoitza Nagusia: **Markina-Xemein**. Arretxinaga Etorbidea, 1 • 94-684 44 36.

Busturialdeko HITZAren bulegoak:

Bermeo. Atalde, 17, atzekaldea. • 94-618 72 99

Gernika-Lumo. Elbira Iturri kalea, z/g • 94-627 10 85
busturialdea@hitza.eus • www.busturialdea.hitza.eus

Zuzendaria: **Aintzina Monasterio Maguregi**.

Kudeatzailea: **Idurre Arrazola Astoreka**.

Publizitatea: **Iñigo Azkona Bikandi** • publibusturia@hitza.eus

Testuak: HITZA / Aintzina Monasterio Maguregi.

Argazkiak: ADES espeleologia elkarteak • Aitor Arrizabalaga • Alfredo Bermeosolo • Andra Mari Korala • Arrolape Mendi Kluba • Athletic Nabarniz Elkarteak • Artiako Gazte Asanbladie • Atxurkulu Mendi Kluba • Auzholan Elkarteak • Bakearen Museoa • Baso Txoritxu Dantza Taldea • Belendizko txokoa • Bermeoko Euskal Herrian Euskaraz • Bermeoko Mugimendu Feminista • Bermeoko Udala • Besalde Elkarteak • Bizkaiko Foru Aldundia • Bizkaiko Gurutze Gorria • Busturiko Udala • EAJ-PNV • Eako Udala • Elantxobeko Udala • Egigun Elkarteak • Erika Julieth Rojas • Erramun Mendibelanda • Ernai Gernika • Ertzaintza • Etxalak • Euskaraldia • Foruko Sokatira Taldea • Foruko Udala • Garriko Berto Ekola • Gautegez Arteagako Pala Kluba • Gautegez Arteagako Udala • Gernika-Lumoko Kultur Etxea • Gernika-Palestina Deialdi Herritarra • Gure Arbasoen Kultur Elkarteak • Gym Berdea Ea • Herrijeri Emon Arnasa Kultura Elkarteak • Iñaki Olano • Iluntzar Jai Batzordeak • Irekia • Itziar Otazua • Kaishop • Korrika • LAB sindikatua • Madari Audiovisual • Maite Bilbao • Mareak Jaialdia • Marian Olano • Maria Mentxaka • Matxixako TKT • Mendata Ezagutuz • Montorrealde Guraso Elkarteak • Murueta Motorsport • Muruetako Udala • Mundakako Udala • Munduko Pilota Batzarra • Muxika-Ibarruri-Gorozikako Udala • Naia Laso • Natxituko Jai Batzordeak • Nuntxaku Kultur Elkarteak • OLFeminin • Orbela • Oskar Matxin • Oxigastro Curtisii Kultur Elkarteak • Sare Gernika-Lumo • Sukarrieta Kanala Arraun Kirol Kluba • Sukarrieta-Kanalako Emakumeen Elkarteak • Sukarrietako Udala • Txebi Arriaga • Txipiroi Swim • Urdaibaiko Organoak Joxe Mari Egileor • U-Bai faktoria • Zarrabenta Elkarteak • Busturialdeko HITZA

Azala: **11BARRI** / Eli Azpiazua Armaolea.

Diseinua eta maketazioa: **11BARRI** / Nekane Akarregi Amutxastegi.

ERREDAKZIOA

• **Bermeo • Busturia • Forua • Murueta • Sukarrieta** •

Zalao Iturbe San Jose 647 35 56 54 bermeo@hitza.eus / busturialdea@hitza.eus

• **Ajangiz • Arratzu • Gernika-Lumo • Muxika • Nabarniz** •

Ainhoa Astarloa Beotegi 607 29 22 23 gernika@hitza.eus / busturialdea@hitza.eus

• **Ea • Errigoiti • Gautegez Arteaga • Morga** •

Ane Maruri Aransolo 647 35 50 09 / ea@hitza.eus / busturialdea@hitza.eus

• **Elantxobe • Ibarrangelu • Kortezubi • Mundaka** •

Alex Uriarte Atxikallende 647 35 53 32 / busturialdea@hitza.eus

• **Ereño • Mendata** •

Mikel Reina Barros 607 49 01 67 / busturialdea@hitza.eus



Hitza diruz laguntzen duten udalak:

Ajangiz, Bermeo, Busturia, Ea, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.



Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Aurkibidea

Euskara	6
Ekonomia	7
Politika	8
Kultura	9
Kirola	10-11

2024, hilez hil

Urtarrila.	12
Otsaila.	16
Martxoa.	20
Apirila.	24
Maiatza.	28
Ekaina.	32
Uztaila.	36
Abuztua.	40
Iraila.	42
Urria.	46
Azaroa.	50
Abendua.	54

HITZA

JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:
www.busturialdea.hitza.eus

- HITZA Busturialdea
- @HITZAbusturia
- Busturialdeko Hitza
- Busturialdeko Hitza





BERO EDER

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Aerotermita - Biomasa -
Eguzki-termikoa - Zoru erradiatzailea

Berogailuen eta energia berriztagarren instalazioak etxebizitza-erakinetan, familia bakarreko etxebizitzetan, landetxeetan eta baserrien birgaitzetan

SUKALDE EKONOMIKOAK ETA BEROGAILUAK. EGUR ETA PELLETEN NEURRIRA.



EGUR ETA PELLETEN UR BEROGAILU-TXIMINIAK



BERO EDER · Ixer, 20-behea · 48340 ZORNOTZA
94-630 08 29 · info@beroeder.com

EGURROLA ERAIKUNTZAK

Era guztietako eraikuntza-obrak
egiten dituen enpresa gara



Neurrira egindako aholkularitza teknikoa.

Fida zaitezte sektore honetan
dugun ezagutzaz eta esperientzia zabalaz.

Bekoibarra, 35.
1. solairua.
9. Depart
GERNIKA-LUMO



egurrola.eus

696 400 486 / 688 681 539
info@egurrola.eus
@egurrola_eraikuntzak

Publizitatu
zaitez
HITZAn

Ezagutarazi
zure lana
iragarkiak ipinita
gurean!



647 31 97 77

publibusturia@hitza.eus

HITZA

- HITZA EGUNKARIA
- HITZA URTEKARIA
- HITZA EGUTEGIA
- GEHIGARRI BEREZIAK:
Arraun Gida, Oreka [osasuna],
Gure Kabia [etxegintza],
Txoko Kuttunak [turismoa],
Azal Berritzen [moda]...

SAN JUAN

Loteria-Administrazioa 2 zk.



San Juan, 23 - Tel. 94 625 48 99
48300 GERNIKA-LUMO



Torrealday

AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE
AHOLKULARITZA

www.torrealday.es

BERMEO - 94 688 46 08
GERNIKA - 94 627 00 36
LEKEITIO - 94 684 26 75
ONDARROA - 94 683 29 75



urdaibai
aseguru artekaritza

Juan Kaltzada kalea 23- behea
48300 Gernika-Lumo

segurosurdaibai@segurosurdaibai.com

94-625 58 00

B d B
URRESTI

Eraikuntza
espezializatutako denda

Duela 50 urte
baino gehiagotik
erreferentzia gara
eraikuntzako
materialen, zeramikaren
eta bainurako
osagarrien salmentan



Bisitatu gure
ZERAMIKA
ERAKUSKETA

BILTEGIA: Landabaso B Pol. Ind. 6 eta 7 - BERMEO • T. 94-688 21 52
ERAKUSKETA: Arresi 17 behea - BERMEO • T. 94-618 77 65
urresti@grupobdb.com www.grupobdb.com

ven 1948
ardandegiak

Vinos Embotellados del Norte, S.A.
Goiko Ibarra 19 - 48300 GERNIKA
Tel.: 94-625 03 63 • Mug.: 615004738

**JOSE ANTONIO
GONDRA URBERUAGA**
agente eskusiboa E0189B95756748
GONDRAGERNIKA, S.L.

ZURICH
Aseguruak

94-625 44 50

gondragernika@zurichagente.es

San Juan, 25 behea
Gernika-Lumo



Hainbat berritasunekin egin zuten Eingule? lehiaketa, hirugarrenez

BERMEO/ Bermeoko berbekin jolasean aritzeko Eingule? lehiaketa berritasunekin egin zuten hirugarren urtez. Aurreko aldietan Euskararen Egunaren bueltan antolatu zuten lehiaketa, hainbat asteko lehiagaz eta lehiaketa herrikoiagaz; hirugarren aldia, ostera, gazteen parte hartzea sustatzeko asmoz, udaleko Euskara Sailak, lehiaketa txosnagunea zabaltzen zen egunean, irailaren 6an, egitea adostu zuen Ber-

meoko Txosna Batzordeagaz. Gainera, batzordeak antolatutako Kuadrillen Lehiarako puntuagarria izan zen. Era berean, irailaren 1etik 6ra sei bideo zabaldu zituzten sare sozialetan. «Gure hizkera eta nortasuna balioan jarri nahi ditugu. Hizkerak berak gure nortasuna definitzen du, eta gurea berreskuratu eta indartu nahi dugu», azpimarratu zuen Iker Bilbao San Nikolas Euskara zinegotziak.



Euskaraldia, udaberrian loratzeko zain

BUSTURIALDEA/ Elkar mugituz egingo dugu lelopean, Euskaraldiaren laugarren aldia 2025eko maiatzaren 15etik 25era izango zela iragarri zuten 2024ko urrian. Euskaraldia birdefinitu zuten: Euskararen erabilera aktibatze mugimendua. Euskara aktibatzaileen gidaliburua ere aurkeztu zuten.



Kaishop, herrian euskaraz erosteko

GERNIKA-LUMO/ Udalak zein herriko merkatariak tokiko merkataritza eta euskara hauspotzen zuen Kaishop! kanpainagaz bat egin zuten, bertako denden hurbiltasuna, konfiantza eta aholkularitza agerian utziz, eta euskaraz erosteko deia eginez. Hala-ber, bezeroen artean hainbat sari banatu zituzten.

Harrotze Asteagaz bat egin zuten bermeotarrek

BERMEO/ Euskal Herrian Euskarazek deitutako Harrotze Asteagaz bat eginez, Solluberako saihebidetako biribilgunearen parean horma-irudia margotu zuten eta ikastetxeetako eta institutuko ikasleek pankartak egin zituzten, *Euskaraz bizitzeko, ez gara losatik bajatuko!* lelopean. fono.



Euskara plan estrategikoa lantzen hasi ziren

MUXIKA/ Euskara sustatzeko plan estrategiko berria lantzen hasi zen, Muxikako Udala, herritarren parte hartzeagaz eta Uemagaz elkarlanean. «Azken emaitza soziolinguistikoaren arabera, izugarri jaitsi da euskararen erabilera udalerrian eta kezkatuta gaude», esan zuten udal ordezkariak.



Eskualderako plan estrategikorako lankidetz

BUSTURIALDEA/ Busturialdea-Urdaibaiko Plan Estrategikoa 2025eko udaberrian onartzea aurreikusi zuten, eta hausnarketa «integrala eta estrategikoa» egiteko prozedura hasi zuten 2024ko urrian. Busturialdeko hogeidalerrietako alkateek eta Eusko Jaurla-

ritzako nahiz Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak osatu zuten «hausnarketa integrala» lantzeko talde eragilea. Lehen bilera urrian egin zuten Busturian, eta egoeraren diagnostikoa ekoitzi eta planaren helburuak partekatu zituzten.

Coworking gela egokitu zuten udaletxean

GAUTEGIZ ARTEAGA/ Herrian jarduera ekonomikoak sustatzeko helburuagaz, eta gazte ekintzaileei, autonomoei eta Enpresa Txiki eta Ertaneien euren proiektu profesionalak «garatzen hasteko leku bat» emanez, Coworking gela, lan egiteko partekatutako gunea egokitu zuten udalak, udaletxeak azken solairuan, 08:00etatik 15:00etara arteko ordutegiagaz.



Berton Elkartearen 40. urteurrena

BERMEO/ Bermeoko Berton merkatarien elkarteak 40 urte bete zituen 2023an, eta urteurrenaren ospakizunen barruan, 2024ko ekainean Expo Azoka antolatu zuten, Lameran. 22 komertzio parte hartu zuten. Proiektuaren sortzaileak eta urte luzez batzordean egondakoak omendu zituzten. Herritarren erantzunagaz «pozik» agertu ziren.



Ekintzaile eta enpresa komunitatea batzeko topagunea

BUSTURIALDEA/ U-BAI osatzen zuten eragileen arteko «lankidetzaren sendotzeko eta indartzeko» helburuagaz batu ziren, administrazio publikoak, eskualdeko enpresa traktoreak, ekintzaileak eta hezkuntza zentroak, BBK Klima zentroan. Gainera, U-BAI Ondarea Saria eman zioten 1890ean sortutako Bermeoko Conservas Serrats enpresari, «tokiko ekonomiari egindako ekarpen historikoa» aitortuz.



U-Bai Faktoriaren eta Aztiren lankidetz hitzarmena, sinatuta

BUSTURIALDEA/ U-Bai Faktoriak eta Aztik lankidetz hitzarmen estrategikoa sinatu zuten, «eskualdeko ekintzailetza ekosistema indartzeko asmoz». Bien arteko «aliantza sendoa ezarri» zuten, Urdaibaiko garapen ekonomiko eta teknologikoa bultzatuko zuten enpresa ekimen berritzaileak identifikatu, aztertu eta potentzialki inbertitzeko helburuagaz. Horretarako konpromiso zehatzak hartu zituzten.



Senegalen hildako arrantzalearen heriotza salatu zuten

BERMEO/ Abuztuaren 25ean Bermeoko Pesqueria Vasco Montañesa SA enpresarako lanean ari zen arrantzale bat hil zen Dakar (Senegal) inguruko uretan; heriotza ez traumatikotzat jo zuten ofizialki. LAB, ESK, STEILAS, EHNE-etxalde eta HIRU sindikatuek elkarretaratzean salatu zuten.



Imanol Pradalesek lehendakari kargua hartu zuen Batzarretxean

GERNIKA-LUMO/ Hamabi urtez karguan egon zen Iñigo Urkullu lehendakari ohiaren eskutik, hunkituta eta txalo artean eta Gernikako arbolaren azpian zin egin ostean hartu zuen lehendakariaren aginte makila Imanol Pradales jeltzaleak. Estatuaren ordezkari gisa hartu zuen kargua, baina Espainiako Konstituzioari leialtasuna aipatu barik. Eusko Jaurlaritzaren

zortzigarren lehendakaria izan zen, seigarrena demokrazian. Alderdi politikoetako eta instituzioetako ordezkari zabalatu zen ekitaldian. Bestalde, kanpoaldean hainbat aldarrikapen entzun ziren; besteak beste, Guggenheim Urdaibai Stop plataformako kideak egon ziren, «eskualdean Guggenheimik ez zutela gura» aldarrikatzen.



Europako parlamenturako hauteskundeak

BUSTURIALDEA/ Europako parlamenturako hauteskundeetan, EH Bildu nagusitu zen Busturialdean, 8.057 botogaz; boto kopuruan jaitsi zen, 8.571 boto lortu baitzituen 2019an. EAJ izan zen bigarren indarra, 7.648 botogaz; 2019an baino 5.631 boto gutxiago eduki zituen. %37,30eko abstentzioa egon zen eskualdean.



Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena

SUKARRIETA/ Sabino Aranaren heriotzaren 121. urteurrenaren bezperan, EAJk ekitaldia egin zuen Sukarrietan. Herrialde Buru Batzar eratu berrietako ordezkari bereganatu zuten arreta, batikbat: Iñigo Ansola (BBB), Maria Eugenia Arrizabalaga (GGB), Jone Berriozabal (ABB), Pantxoa Bimboire Haritschelar (IBB), eta Unai Hualde (NBB).

Euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea eskatzen

BUSTURIALDEA/ Etxeraten eta Sare Herritarraren deialdiari erantzunez, euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea aldarrikatu zuten, Laidan eta Mundakan. «Gatazkak utzitako hainbat ondoriok eragiten segitzen duen sufrimendurekin eta injustiarekin amaitu behar dugu», azpimarratu zuten.





Areto beteko zikloa izan zen MusikEan, beste behin

EA/ Musika klasikoaren aniztasuna islatu zuen MusikEan zikloak, laugarren urtez. Segundo Olaeta Musika Eskolakoan, Amets Proiektukoan, Aitzol Iturriagagoitiaren (biolina) eta David Apellanizen (biolontxelo) eta Iubilo Bilbao Abesbatzaren kontzertuak

eskaini zituzten. «Azpimarratu behar da egun guztietan bete zela aretoa; arrakastua izan da. Maila oso oneko musikariak egon dira, eta zikloak utzitakoagaz oso pozik gaude», adierazi zuen Agustin Bergara zikloaren koordinatzaileak.

Familei zuzendutako irakurketa kluba

EA/ 6 eta 8 urte arteko umeentzako eta helduentzako familiako irakurketa kluba antolatu zuten Eako liburategian. Urrian, azaroan eta abenduan eguazten arratsaldeetan elkartu ziren, eta liburutegitik hainbat baliabide eman zizkietan. Helburu nagusia irakurketaz eta literaturaz gozatzea zela azpimarratu zuten antolatzaileek.



Santimamiñe Eguna, dantzeekin girotuta

KORTEZUBI/ Santimamiñe Eguna ospatu zuten uztailearen 12an, Santimamiñeko kobazuloan arkeologia lanak hasi ziztuztenetik 100 urte baino gehiago igaro zirela gogoratzeko. Dena Bilbao dantza ikuskizuna eskaini zuen eta gauean «bisita gidatu ikusgarria» egin zuten.



Josu Bilbao Gure Artea 2024 saria jaso zuen

BERMEO/ Josu Bilbao bermeotarrak Gure Artea 2024 sarierant jarduera sortzailea aintzatesten zuen saria jaso zuen. Epaimahaiaren ustez, bere sorkuntzak etengabeko ikerketa prozesutat zituen: «Bizi garen eremua ikuspegi kritiko batetik aztertzeke interesa duten artisten belaunaldi berri bateko kide da».



Bakeafest kontzertuaren lehen ekitaldia, Lizeoan

GERNIKA-LUMO/ Bakeafest kontzertua eskaini zuten apirilean, Lizeo Antzokian, 36ko gerrako ondorioak pairatu zituzten herrietako artistak, musikagileak eta musika elkarteak batuz. Segundo Olaeta Musika Eskolako Bandako, Andra Mari Koraleko eta Zigoitiko Mairu Abesbatzako kideak oholtzaratu ziren, «sinbolismoz» betetako emanaldian.



Basterretxearen bizitza eta obrari gorazarre, Urtantan

BERMEO/ Mendia eta musika uztartzen zituzten Urmuga jaialdiaren Urtantak Nestor Basterretxea omendu zuen *Matxitxakoko Guda* eskultura parean. Bermeoko Sollube 707, Gernika-Lumoko Goi Zale, Busturia Mendi Taldeak eta Mundakako Gazte-Zar mendi taldeek eta hainbat udalek bat egin zuten.



Mustafic eta De La Hera, arrainen bizkortasunez

IGERIKETA/ Adnan Mustafic eta Andrea De La Hera nagusitu ziren Salome Campos igeriketa zeharkaldiaren proba nagusian. Itsas zeharkaldiak ordua arteko parte hartzerik handiena eduki zuen: ia 800 igerilari. Antolakuntzakoek hamargarren aldia «arrakatsua eta bikaina» izan zela esan zuten, eta hurrengo urtekoari begira, helburu nagusia «kalitate mailari eustea» zela.



Inklusioaren eta ilusioaren saskiratzeak

SASKIBALOIA // 2023ko martxoan batu ziren lehenengoz, Gernika KESBeko Fenomenoak taldekoak, eta 2023-2024 denboraldian Bizkaiko Ligara salto egin zuten. Azaroaren 19an jokatu zuten ligako etxeko lehenengo partidua, eta 500 ikusle baino gehiago elkartu ziren Santanapen. Adimen urritasuna

zeukaten kirolarien ligako Open Day deiturikoa kirol egokituari ikusgarritasuna emateko eguna izan zen; hezkuntza eta gizarteratzea batu zituen. Fenomenoak berdintasunaren, inklusioaren eta kirolaren balioen eredu argia izan ziren. 2024-2025 denboraldian ere liga lehiatu zuten.



Etxeberria eta Loza txapelkun, Ajangizzen

ESKU PILOTA/ Ajangizko X. Esku Pilota Txapelketaren nagusien mailako finalean, Etxeberria eta Loza 22 eta 12 gailendu zitzaizkien Fernandezi eta Bernaolari. Aldirik «jendetsuena» izan zen; «bikain» joan zen. Hainbat tokitako harrobiari plaza eskaintzearen helburua bete zuten, beste behin.



Taekwondoa zabaltzen, sarea handitzen

ARTE MARTZIALAK/ 2021ean sortu zuten TAE Gernika, taekwondoa praktikatzeko aukera eskainiz: «Sarea zabalduz doa, taekwondoak ez du adinik, edonork praktika dezake, modalitatearen arabera entrenatzeko aukera eskaintzen baitu». 2025erako Gernika-Lumon txapelketa bat antolatzeko asmoa agertu zuten.

Gautegiz Arteagako I. Pala Txapelketa jokatu zuten

PALA / Gautegiz Arteagako lehenengo Pala Txapelketa jokatu zuten. Lehenengo, bigarren eta betaranoen mailetan aritu ziren, bi modalitateetan: pala motzean eta gomazkoan. Harmailetan «giro paregabea» sortu zen finalen egunean, eta txapelketak emandakoagaz «gustura» geratu ziren. «Orokorrean, oso gustura gaude txapelketak eman duenagaz, bai pilotariak, bai antolatzailleak, bai ikusleak», azaldu zuten Gautegiz Arteagako Pala Klubaren ordezkariak.





II. Serrats Aldapa Xtrem Bike Marathon, bigarrenez

TXIRRINDULARITZA/ Eguraldi txarrak «bereziki gogortu» zuen II. Serrats Aldapa Xtrem Bike Marathon lasterketa. Bi ibilbide (Bike Luzea eta Bike Laburra) eta hiru probetan 300 txirrindulari inguru aritu ziren. Iñigo Gomezek XCM mailako Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen, ibilbide luzean. Gainontzeko garaileak Damian Garcia eta Aliotz Txertudi busturiarra izan ziren. Aspanovas minbizidun haur eta nerabeen gurasoen elkartea diruz lagundu zuten antolatzailleek, eta izen emateetatik ateratako 1.000 euroko laguntza jaso zuten elkartek. Matxi-txako Txirrindulari Kirol Taldekoek esan zuten txirrindulariek «gogotik sufritu» zutela, ibilbideak teknikoago eta gogorrago bihurtu baitzituen eguraldiak.



Euskal Herrian eta Boisen, Arrizabalaga txapeldun

ESKU PILOTA/ Olatz Arrizabalaga gernika-lumotarrak eta Itxaso Erasun zizurkildarrak MLK Binakakako Txapelketa irabazi zuten martxoan. 22 eta 16 irabazi zieten Madalen Etxegarai oñatiarrari eta Enara Gaminde laukiztarrari. Halaber, Europako Pilota Txapel-

ketan txapeldun geratu zen euskal selekzioagaz, apirilean. Bestalde, Arrizabalagak II. Euskal Herria Basque Country Txapelketa ere irabazi zuen uztailean, Boiseko Basque Blockeko pilotalekuan; 22 eta 19 nagusitu zitzaion Madalen Etxegarairi.

Damaris Egurrola, Europako izarren artean distira egiten

FUTBOLA/ Emakumezkoen Txapeldunen Ligako finala jokatu zuten Olympique Lyonnais taldeko Damaris Egurrola gautegiz-artegarrak. Bartzelonak 3 eta 1 irabazi zion talde frantziarrari. 2023-2024 denboraldian ligako txapeldunak izan ziren; hiru urtez jarraian irabazi zuten liga Egurrolaren taldeak.



Busturialdeko Inertzia Kopa sortu zuten eta «arrakastatsua» izan zen

BUSTURIALDEA/ Busturialdeko Inertzia Kopa sortu zuten, eta maiatzean hasi zuten, Ajangizen. Muxikako, Gernika-Lumoko eta Murrutako probak lehiatu ostean, Mendatak hartu zuten txapelketaren azken hitzordua, irailean. Koldo Betanzosek eta Urko Lekerika-beaskoak irabazi zuten kopa; azkenengo proba ere, nagusitasun osoz gailendu ziren. Busturialdeko Inertzia Koparen lehen aldia «arrakastatsua» izan, eta balorazio «bikaina» egin zuten: «Parte hartzaile eta ikusleengandik erantzun oso polita jaso dugu. Jaitsiera ederrak, herrikiokiak eta euren artean oso bestelakoak prestatu ditugu, eta lehendik egiten ziren batzuk biziberritu».

Adineko andren kontrako indarkeria matxista, hizpide

BUSTURIALDEA/ Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuak «ahal bezainbeste prebenitzeko helburuagaz», Herritertulia saioak egin zituzten Ajangiz, Arratzun, Ereñon, Foruan, Gauegiz Arteagan, Morgan, Mundakan eta Sukarrietan: «Adineko emakumezkoek jasaten dituzten indarkeria matxista aztertzen duten ikerketak oso murriztak izateak, bistaratu egiten ditu fenomeno horren ikusezintasuna eta, aldi berean, begirada kritikoaren eta tratamendu espezifikoaren beharrizana. Merezki duten bezain besteko arreta ez dute jasozten».



Garriko Bertso Eskolari aipamena, Bertso Egunean

GERNIKA-LUMO/MUXIKA/ Bertso eskolei aitortza eginez, Gernika-Lumon ospatu zuten 2024ko Bertso Eguna, urtarrilaren 27an. Hain zuzen ere, Muxikako Ariatza auzoan egin zuten lehen geldialdia, eta bertako Garriko Bertso Eskolak aipamena jaso zuen. 65

bat urte lehenago sortu zuten Pedro Ajuriak eta Balendin Enbeitak Garriko Bertso Eskola, «Euskal Herriko lehen bertso eskola». Bertso poteo eta kalejiraren ostean, bazkal-tzen eta bertso saioan bildu ziren Astran, eta DJ Bull ere egon zen.



Euskara eskolak herrian jasotzen hasi ziren

MUNDAKA/ Estreinakoz, Mundakako Udala udalerrian euskara eskolak babesten hasi zen: «Lehenengoz eman zion udalak egitasmo horri 100%eko diru laguntza». AEKgaz elkarlanean gauzatu zuen, eta mundakarak euskara ikastea eta euskararekiko kontzientziatzea lantzea zuten helmuga eskolek. Sorne Rubio Arano Mundakako alkate eta euskara zinegotziak azaldu zuen «ekimenaren helburu nagusia Mundakako herritar guztien artean geure hizkuntza sustatzea» zela.



Haur eta nerabeak babesteko eskaria


GERNIKA-LUMO/ Gernika-Lumoko Sare Feministak indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak babesteko 8/2021 Lege Organikoak zehaztutako neurrien jarraipena egitea zehazten zuen mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran, EH Bilduren bitartez. Jarraipen hori egiteko, herriko ikastetxe eta kirol klubekin elkarlanean prozesua martxan jartzea eskatu zuten. EH Bilduk alde bozkatuta onartu zuten mozioa, eta EAJ eta Guztiontzako Herria abstenitu egin ziren.





OINETAKOAK
ANHOA

Inigo Lopez de Haro 2, Gernika
Tel. 94 625 32 03



606 35 88 28



AMUTIO

Lurrindegia • Drogeria

Haur, gazte eta nagusientzako operi bereziak!

Gabonak ondo igaro!

Domingo Alegria Enparantza, 2
94-627 00 61
GERNIKA-LUMO



duka

ocho de enero kalea, 3 | Gernika-Lumo
t.f.: 94-625 82 07 | dukadenda@gmail.com
duka | @dukadenda



Sortuk, LABek eta Ernai Busturialdeak Muruetan deitutako agerraldia. ERNAI GERNIKA.

Egiturazko arazoei heltzeko eskualdeko planaren eskaera

BUSTURIALDEA/

Bertoko erronkei erantzuteko plana eskatu zuten LAB, Ernai eta Sortuk

Lan duina eta bitzita askeak lortzeko, zaintza sistema publiko komunitarioa erakitzeko, euskal kultura sustatzeko eta naturarekiko oreka erdigunean jartzeko eskualderako plana eskatu zuten, LAB sindikatuko, Busturialdeko Ernaiko eta Sortuko kideek, Muruetan. «Busturialdeko egiturazko

arazo errealei heldu eta eskualdearen erronkei erantzungo dien plana eraikitzeko baliabideak badaude, eta ditugun jakintza eta tresna guztiak plan horren zerbitzura jarriko ditugu. Borrokaren bidez, eskubi-deak eskuratu eta gurea dena defendatzeko determinazioa ardatz izan behar dugu», adierazi zuten.

«Arduraz, elkarlanerako bokazioz», eta herri sektore ugariarekin batera, lanean aritzeko borondatea agertu zuten. Hain zuzen ere, lan duin, bitzita aske eta zaintza publiko komunitarioaren alde lan egingo zutela nabarmendu zuten, baita

euskal kultura indartzeko eta naturarekiko oreka erdigunean jartzeko ere: «Eskualde ereduaren alde gaudenok gehiengoa gara Busturialdean, eta erronka guzti horietan bidaide izango gara».

Aldarrikapenak

Gogoratu zutenenez, aurreko hilabeteetan kalea aldarrikapen ugariaren ispilu izan zen; besteren artean aipatu zituzten Urdaibaiko Guggenheim proiektuaren kontrako zein azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorreko aldarrikapenak eta Palestinari elkartasuna erakusteko mobilizazioak.

Kosta Legean egindako aldaketari, errekurtsioak

BUSTURIALDEA/ Astilleros Murueta SAN kokatu zegoen kosta zatiak ordura arte zeukan babes-zortasuna 100 metrotik 20 metrora murriztu zuen 2023ko urriaren 19ko Ministro Aginduak. Horren aurrean, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak urtarrilean errekurtsioa jarri zion Espainiako Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak «Bizkaiko Foru Aldundiaren eskariz» Kostaldeari buruzko Legean egindako aldaketari. Agindu hori «deuseztatzeko eta 100 metroko babes-zortasuna berriz deklaratzeko» eskatu zuten, Kostaldeari buruzko uztailearen 28ko 22/1988 Legean xedatzen den bezala. Plataformatik berretsi zuten indarrean zeuden legeekin «ezinezkoa» zela Guggenheim Urdaibai proiektua gauzatzea eta, beraz, proiektua «legez kanpoko zela». Zain Dezagun Urdaibai elkarteak ere administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zuen. Bestalde, Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahalduen Nagusiak eta Iñigo Urkullu lehendakariak urtarrilean adierazi zuten bi urteko epea hartuko zutela «proiektua bideragarria zen aztertzeko eta beste alternatibarik ote zegoen hausnartzeko».



Mendieta auzoa z/g
Tel.: 94-625 19 13
Faxa: 94-625 64 99
www.ajangiz.eus

Ajangizko
Udala

euskaraz
bizi
nahi dugu





Salicako beharginek epaitegietara jo zuten

BERMEO/ Albacora taldeko Salicako langileek hainbat mobilizazioa egin, eta sindikatu guztiak batuta, epaitegietan demandak aurkeztu zituzten. 2023a Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientea (ABEEE) ezarrita eman zuten, eta 2024rako 173 langileri eragiten zion beste bat ezarriko zietela esan zieten 2023ko azaroan. Hainbat mobilizazio egin zituzten.



Zelaiondoko langileen egoera salatu zuten

BUSTURIA/LABek Zelaiondo egoitzako langileak pairatzen ari ziren egoera salatu zuen. Bizkaiko Erresidentzietako Hitzarmenak urteko 1.592 lanordu zehazten zituen, eta Zelaiondon 1.800 ordu baino gehiago egiten zituztela azaldu zuen: «Langileek urtero ordaindu gabeko 3.800 lanordu egiten dituzte. Abenduan langile bat kaleratu zuten, eta eurei ez zegozkien funtzioak egitearen kontra agertze-egatik, beste hainbat mehatxatu dituzte».



Losaleko langileak, hitzarmen duina eskatuz

GERNIKA-LUMO/ 2022ko urte amaieratik hitzarmenik barik zeuden Losaleko beharginak, eta akordio «duina» lortzeko borrokan, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta, eguzternero geldialdiak egin zituzten, eta manifestazioan ere atera ziren. Sindikatuek salatu zuten enpresak «ez zuela borondaterik hitzarmen duin eta osatua egiteko negoziatzeko».



Gerraren kontrako bi horma irudi

ARRATZU/ Gernika-Lumoko Bakearen Museoko ordezkariak eta Barrutialdeko DBH 4. mailako ikasleek gerraren kontrako bi horma irudi margotu zituzten, *Ahanzturaren aurkako hormak* izeneko laborategiaren baitan, Arratzuko suhiltzaileen parkearen eta Barrutialde eskolaren arteko eraikinean. Gerrak «umeei modu oso negatiboan eragiten diela» irudikatu zuten, *Gerrarik ez mezuagaz*.

ADABA
FISIOTERAPIA . ERREADAPTATZIOA

- Fisioterapia traumatologikoa
- Kirol fisioterapia
- Lesioen berreskurapen terapiak
- Magnetoterapia
- Fisioterapia inbasiboa
- Bakarkako eta taldekako entrenamendua

Inigo Lopez de Haro, 5 behea
 Gernika-Lumo
623 18 63 88
adaba@adabafisioterapia.eus
www.adabafisioterapia.eus

EUSKARAZ LAN ETA BIZI GARA!

AMURRIO
BITXITEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

San Roke, 3 Tel.: 94 625 09 28 GERNIKA



Basogintza eredia elkarlanean eraldatzen

MENDATA/ Mendatako Ankurkulu kooperatibakoen ia hektarea bateko lursailean, 600 landaretik gora landatu zituzten. Ankurkulukoek, BaSOS elkartekoek eta Tantai Baso Jabe Kooperatibakoek elkarlanean deituta-ko auzolanari esker, bertoko baso bihurtu

zuten aurretik eukalipto zegoen eremua. Hausnarketa bultzatu eta kontzientziak piztearen garrantzia azpimarratu, eta «Bizkaian biodibertsitatea oso galduta zegoela, eta halako ekintzen beharra oso ageriko zela» adierazi zuten.



Arnasgune berdea sortzen

FORUA/ Karlos Gangoiti kalean uholdeek eragiten zituzten arazoei konponbidea eman asmoz, ia 900 metro koadroko arnasgune berdea sortzeko lanak egin zituzten. Sasiak eta hondarrak kendu, hormak bota eta «errika naturalizatu» zuten.



Zabor grisetik, baso berdera

NABARNIZ/ 30 urtetan erabat aldatu zen Loitiagako eremua. Zabortege izatetik, zoru karstikoan hazitako baso misto izatera igaro zen, bioaniztasunaren leku bihurtuz. Hori erakusteko bisita gidatua egin zuten: «Laborategi txiki bat bihurtu da Loitiaga».



Basoen kudeaketa jasangarrirako hitzarmena, sinatuta

SUKARRIETA/ Sukarrietako Udalak eta Tantai Baso Jabe Kooperatibak udalaren jabetzako mendien kudeaketa jasangarrirako hitzarmena sinatu zuten; udal-jabetzako 31 hektareari eragiten zien. Horrela, kooperatibak Basoen kudeaketa Jasangarrirako Plan Teknikoa (BKITP) garatzeko ardura hartu zuen. Jaime Orueta Sukarrietako alkateak adierazi zuenez, alkatezara iritsi zinenean, programan zeukaten baso mendien ustiaketa «modu jasangarrirako» egitea: «Bagenekien pinuak eta eukaliptoak zeudela, baina uste genuen hori ez zela udal jabetzako mendi batzuetarako egokiena». Baso naturalizatua izatea Sukarrietarentzat onuragarria zela azpimarratu zuen: «Baso naturalizatuagoa izango da; florarekin ez ezik, faunarekin eta ingurumenarekin ere bat dator».



Arratzuko Udala
Euskaraz bizi gara!

Emakumeentzako aholkularitza juridikoa eskaintzen

BERMEO/ Bermeoko Udalaren Berdintasun Saila emakumeentzako aholkularitza juridikoa eskaintzen hasi zen otsailan. Clara Campoamor elkarrekin eskaintzen zuen zerbitzua, Ana Sanchez teknikariaren bitartez. Erasoren bat jasandako emakumeei zuzendutako zerbitzua izan zen, eta «familia kontuei buruz hitz egiteko» ere aukera eskaintzen zuten. Zerbitzua «beharrezkoa» zela nabarmendu zuen Arantza Ormaza Berdintasun Saileko zinegotziak, emakumeentzako aholkularitza ez zegoelako herri guztietan: «Eskertzekoa da herrian horrelako zerbitzua eduki ahal izatea».



Artetik sortua eta aldarrian helmugaratua

MUNDAKA/ Mundakako Eskolako ikasleek, Irantzu Lekue artista eta aktibista gasteiztarraz batera eta herriko kultur eragileekin elkarlanean, horma irudia sortu zuten Tribisarrosse Kultur Etxeko atzealdean. Sorne Rubio alkateak esan bezala, herriaren nortasuna «modu ederrean» jasotzen zuten: «Ibaiadarra, trainerua, olatua, Lamina... Hau da Mundakaren izaera, eta horman ederto gordeta geratuko da». Emakumeen «indarra zein ekina» islatzen zituela nabarmendu zuen Lekuek.

suna «modu ederrean» jasotzen zuten: «Ibaiadarra, trainerua, olatua, Lamina... Hau da Mundakaren izaera, eta horman ederto gordeta geratuko da». Emakumeen «indarra zein ekina» islatzen zituela nabarmendu zuen Lekuek.




Oinezkoen bidean zubia ipini zuten, Astelarran

MUXIKA/ Kurtzero eta Astelarra batzeko oinezkoen bidean zubia kokatu zuten. Mugikortasun eredu jasangarriaren aldeko hautuari eutsiz, Muxika, Ibarruri eta Gorozikako Udalak oinezkoentzako zein bizikletentzako ibilbide sarea osatzen jarraitu zuten, «auzoen arteko konektibitatea hobetzeko asmoz».



Anjel Lekuonaren omenezko totema

BUSTURIA/ 1945eko apirilean Hirugarren Reicheko kontzentrazio esparru batean fusilatu zuten Anjel Lekuona busturiarren omenezko totema inauguratu zuten, Altamiran. Giza eskubideen urraketak jasan eta askatasuna, demokrazia eta justizia soziala defendatzeagatik hildakoak gogoratu zituzten.



Andra Mari
Apartamentu Turistikoak
Talakotxea, 1 | 626 89 16 61
andramariapartamentuak.com

OZONOPE
JATETXEA

ARRAINAK, HARAGIAK,
ITSASKIAK...
ERRETA EDO PLANTXAN

PORTU KALEA · ELANTXOBE itxasogonope@gmail.com 94 627 66 27



BILTEGI SL
Apalategiak
Biltegiratze zerbitzuak

Bekoibarra Industrial.,3
25.mod (Sollube), 20. pabil.
GERNIKA-LUMO

94-627 08 77
www.biltegi.com



SASOIE
JATETXEA

Eriabarrena, 2 behea
Gernika-Lumo
94-627 03 64
restaurantesasoie.com



Ibarrangeluko inauteriak. ANE MARURI ARANSOLO.

Koloredun soinekoak erantsi barik ibili ziren herritarrak

BUSTURIALDEA/
Denetarikoa
ekintzak eduki
zituzten
Aratusteetako
egitarauak

oko 21. Tabernen Mozorro Lehiaketa. Halaber, Kuardilen mozorroren argazkiak bildu gura izan zituen Bermeoko Udalak, eta sare sozialetan horiek partekatzeko eskatu zieten herritarrei, #bermeoaratuste24 traola erabilita.

Jai, mozorro, irrintzi eta kolorez jantzi ziren Busturialdeko udalerriak, Aratustee-tan. Kalejirak, diskojaiak, tostada eta txokolate janaldiak, mozorro lehiaketak nahiz desfileak... Beste urte batez, askotariko ekitaldietan batu ziren herritarrak. Besteak beste, Doniene tabernak irabazi zuen Berme-



Argazki galeria:



Eraso matxista salatzen elkartu ziren herritarrak

EA/ Bedarona, Natxitua eta Eako Andrak taldearen deialdiari erantzunez, elkarretaratzeko batu ziren herritarrak, Donibane Plazan, udalerrian gertatutako eraso matxista salatzen. Erasoa jasan zuen emakumeari eta hurbilekoei elkartasuna eta babesa helarazteagaz batera, indarkeria matxistaren kontrako mezua zabaltzen: «Berrito ere, zoritxarrez, atsegina ez den egoera baten aurrean gaude. Aste honetan gertatutako eraso irmoki gaitzesteko batu gara. Azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista Giza Eskubideen urraketa larria dela, eta lehen mailako gizarte arazo». Erasotzaileek udalerrian lekuri ez daukatela esan zuten: «Argi eta garbi adierazi nahi dugu gure herrian ez dugula onartzen emakumeen kontrako indarkeriarik, eta ozen diogu ez dela egongo erasorik erantzunik barik geldituko denik. Erasotzaileek ez dute lekuri gure kaleetan, ezta gure bizitzetan ere, eta gaur eta beti aurrean izango gaituzte».



EUSKERAZ
ASKO GUTSUT



Ikasketak garatzeko espazio berdeak

EA/ Gym Berdea proiektuagaz bat egin zuten Eak. 2022an pare bat hilabeteko proiektuagaz hasi ziren, eta 2023an eta 2024an urte osoko lanketa egin zuten. Ingurumena zaindu eta errespetatzearen kontzientziagaz, herrietan eta hirietan hainbat proiektu jorratzen zituzten Gym Berdean. Ean proiektuaren «erdigunea» Natxituko Haizeder Eskola izan zen.



Udaletxea eraberritzeko lanak egin zituzten

IBARRANGELU/ Ibarrangeluko Udalak aerotermitia lanak egin zituen udaletxean. Leihateak aldatu, teilatua konpondu, erreteila egin, erlaitza aldatu eta aurrezpen energetikorako materiala ipini zuten. Era berean, eraikinaren barrualdeko hezetasun arazori aurre egiteko zenbait neurri ere hartu zituzten.



Kirol ekipamendu eta material berriak

ELANTXOBE/ Elantxobeko Udalak kirol instalazioetan berrikuntzak egin zituen. Talaiako jolasgunean saski eta ate berriak ipini zituzten. Ekipamendu berria «seguruagoa eta kalitate hobekoa» zela azpimarratu zuen Patxi Egurrola Elantxobeko alkateak. Gainera, arraun elkartearentzat eta kiroldegirako kirol material berria ere erosi zuten.



Alokairuko 24 etxebizitzaren proiektua

MUNDAKA/ Erreka eremuan, Laidatxu hondartzaren ondoan alokairuko 24 bat etxebizitza publiko eraikitzeko proiektua aurkeztu zuten Sorne Rubio Mundakako alkateak eta Pedro Jauregi Etxebizitza sailburuordeak. Etxebizitzaren %40 36 urtetik beherakoentzat izango zirela azaldu zuten.

ANTON OLARREAGA

Almike kalea, 7
Denda:
94-688 36 74
Etxea:
94-688 33 06
BERMEO

JANARI PRESTATUAK
HARATEGI URDAITEGI

ARRANO
taberna

Juan kaltzada 4.
GERNIKA -LUMO
946 255 967
@arrano_etxea

• Bariku eta zapatu iluntzeetan:
HANBURGESAK • PIZZAK • SANDWITXAK • RAZIOAK



Pablo Gonzalez, bi urtez Polonian preso

GERNIKA-LUMO/ Pablo Gonzalezek bi urte bete zituen preso otsailaren 28an, eta Gernika Memoriaren Lekukok deituta, manifestazioan atera ziren 600 bat herritar. Gonzalez askatzeko eskatzeaz gain, kartzelan bizi zuten «baldintza negargarriak» salatu zituz-

ten. Oihana Goirienak Gonzalezek bidalitako azken mezua irakurri zuen: «Hemen ez da giza eskubiderik existitzen, ezta Europar Batasunik ere. Nahi dudan bakarra faltsukeria albo batera uztea da. Honek ez du justifikaziorik».



Goikoren agurra, Winterrean

GERNIKA-LUMO/ Aritz Erkiagak eta Jon Ibarluzeak irabazi zuten Gernika-Lumoko Jai Alai Winter Seriesa, Iñaki Osa Goikoetxearen eta Unai Lekerikaren kontra. 27 urteren ostean, harmaila betearen aurrean agurtu zuen bere kirol ibilbidea Goikok.



Mugikorraren erabilera

BUSTURIALDEA/ Eskualdeko hainbat eskoletako guraso elkateek lantaldea osatu zuten, haurrek egiten zuten mugikorraren erabilera buruz hausnartzeko, eta eskoletako gurasoen artean galdetegia zabaldu zuten, «euren seme-alabekin erantzuteko».

Eskualderako plan sozioekonomikoa onartu zuten

BUSTURIALDEA/ Eusko Jaurlaritzan Gobernu Kontseiluak Busturialdea-Urdaibai eskualderako eragile sozial eta ekonomikoekin hausnartutako erakunde arteko plan estrategiko bat aurrera erotea onartu zuen: «Ekonomia eta enplegua berraktibatzeako plan estrategikoa eskualdeko eragile sozial eta ekonomiko nagusiekin partekatutako gogoeta eta diagnostikotik abiatu behar da». Lehenetsuneko jardura eremuetarako garatutako ereduen ildotik, plana bost jardura eremutan egituratu zuten: jardura ekonomikoa, prestakuntza eta enplegua; hiri eraldaketa eta berroneratzea; kultura eta turismo jasangarria; mugikortasuna eta ingurumena; eta oinarritzko azpiegiturak: hornidura, saneamendua edo lurzoruen leheneratzea. Plana egiteko ikuspegi metodologikoak ezaugarri hauek kontuan hartu beharko zituela esan zuten: eskualdearen erronka estrategiko nagusiei lotutako ikuspegia; ekimen espezifikoak izango zituzten bost edo sei proiektu traktore identifikatzea, deskribatzea eta kuantifikatzea; emaitza adierazleen panela egitea, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko; eta plana ezartzeko eta bere jarraipena egiteko gobernantza eredu.





Zaintza sistema publiko eta komunitarioaren aldeko borroka zabaltzen

BUSTURIALDEA/ Bermeoko Mugimendu Feministak eta Gernikako Sare Feministak manifestazioak deitu zituzten Emakumeen Nazioarteko Egunean. Zaintza sistema publiko eta komunitarioaren aldeko borroka nabarmendu zuten, eta Palestinaren nahiz pentsiodunen aldeko babes keinuak ere ez ziren falta izan. Era berean, Bermeon Salicako langileei ere elkartasuna

adierazi zieten. Hala, besteak beste, Gernika-Lumon udalari nahiz Busturialdeko Mankomunitateari zaintza mahaia sortzeko eskaria berretsi zuten. Bestalde, bermeotarrek kalitatezko zerbitzuak soilik onartzen zituztela eta onartuko zituztela azpimarratu zuten. Menpekotasun eta oztopoen aurrean, «elkarrekin ekiteko beharra» aldarrikatu zuten.



Esplotazio eta zapalkuntza kulturala hizpide

GERNIKA-LUMO/ Emakume beharginek jasan behar zituzten «esplotazio basatia eta zapalkuntza kulturala» eduki zituzten ahotan Busturialdeko Itaia deitutako Gernika-Lumoko mobilizazioan. Emakume langileak aktibo politiko bihurtzea eta gizarte mailan etika komunista hedatzea aldarrikatu zuten.



Emakumeen lehenengo taldea sortu zuten

SUKARRIETA/ Sukarrietako emakumeen lehenengo taldea sortu zuten: Sukarrieta-Kanalako Emakumeen Elkarte. Halaber, herrian «lehenengoz» egin zituzten Emakumeen Egunari lotutako ekintzak; besteak beste, zapiak prestatu zituzten, *Emakumeok batera, beti aurrera* leloagaz.

EUSKAL SOUVENIRS
GERNIKA

EUSKAL SOUVENIRS
Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com

f i
@euskalsouvenirs

IRUSKIETA
BITXITEGIA
JOYERIA

Andra Mari Kalea z/g
48300 GERNIKA (Bizkaia)
Tel.: 94 625 11 75
e-mail: joyirus@hotmail.com

ZYLIVETA TANATORIOA
KREMATORIOA

www.funerariazulueta.es
946 883 321 - 652 776 194

BERMEO: Intxausti kalea, 16
MUNGIA: Markaida Bidea, 10 oskarzulueta@hotmail.com

Zulueta

Intxausti, 18 Bermeo
94-688 33 21
muebleszulueta.com

Dekorazio proiektu integralak eta altzarrien salmenta



Xixili Klubarena izan zen Busturialdeko azken kilometroa, Bermeon.

Harro egoteko ehunka arrazoi eta milaka pauso, 23. Korrikan

BUSTURIALDEA/ Martxoaren 20an iluntzean sartu zen Korrika eskualdera, eta goizaldean irten zen Bermeotik

Eskuz esku eta pausoz pauso harro egoteko ehunka arrazoi daudela erakutsi zuten 23. Korrikan, Busturialdeko herritarrek. Eako EH Bilduko kideak izan ziren eskualdean lekukoa hartzen lehenengoak, martxoaren 20an, 20:30ak aldeira, eta Ea, Ibarrangelu,

Elantxobe, Gauteziz Arteaga, Kortezubi, Gernika-Lumo, Muxika, Forua, Murueta, Busturia, Sukarrieta eta Mundaka zeharkatu ostean, Xixilikoek agurtu zuten lekukoa Bermeon, 1.669 kilometroan, 02:45ean. Busturialdeko herritarrek 23. Korrika goxo eta bero hartu zuten, harrotasunez eztanda eginez. Goizean eta arratsaldean, hainbat herritan Korrika Txikiek girotu zuten bere etorrera.

Harro Herri

Martxoaren 14an Irunen hasi zen euskararen aldeko lasterketa jendetsua, eta Baionan amaitu zen hilaren

24an. *Harro Herri* lelopean, 2.700 kilometroko ibilbidea egin zuen lekukoak, eskuz esku.

Azterketak Euskaraz izan zen omendua, eta Garazi Arrulak idatzi zuen lekukoak garraiatutako mezu.

Argazki galeria:



'Arteaga NM' kargaontzia uretaratu zuten

MURUETA/ Muruetako Ontziolaren *Arteaga NM* kargaontzia bedeinkatu eta uretaratu zuten. Azpimarratu zuten «ingerieritza, esperientzia eta talde aldetik Europan zegoen merkataritza ontzirik modernoena eta aurreratuen» lortu zutela. Besteak beste, bertan egon ziren Patrik Saitua eta Julen Karrion Gauteziz Arteagako eta Muruetako alkateak. Mikel Amundarain industria sailburuak esan zuen «ikusgarria» zela horrelako egun batean parte hartzea, «euskarriaren produktu berezi bat uretaratzeko prest jartzen delako». Bestalde, Astilleros de Murueta S.A. ontziola enpresak itxita egon behar zela salatu zuten Guggenheim Urdabai Stop plataformaren kideek eta adierazi zuten lurra deskontaminatuta utzi behar zuela. Enpresak «bere jarduerarekin jarraitzeko instituzio publikoek egindako azpijokoak» gaitzetsi zituzten –kontzesioa 2018an bukatu zitzaion enpresari–.



Donibane enparantza, 2 | Ea

Tel: 94 627 52 27

www.eakoudala.eus



Elkartasun Aktiboa ekimenagaz bat egiten

EA-GERNIKA-LUMO/ Palestinarekiko elkartasuna adierazteko Gernika-Palestina Deialdi Herritarrak deitutako Elkartasun Aktiboa ekimenagaz bat egin zuten Ean eta Gernika-Lumon. Euskal Herriko hainbat instituziok, sindikatuk, ikasle erakundek, norbanakok, kirolarik eta kultur arloko eragilek euren alea jarri zuten, eta jartzen segitzeko konpromisoa hartu zuten.



Ruth Torrek bere karguan segitzeko eskaera

IBARRANGELU-ELANTXOBE/ Ibarrangelun eta Elantxoben elkarretaratzeetan batu ziren herritarrak, Ruth Torrek udalerriotako mediku izaten jarrai zezan eskatzeko. Torrek eskualdean geratzeko barne mugikortasuna onartzea eskatu bazuen ere, Galdakao-Usansoloko osasun zentzora lekualdatu zuten.



Pablo Gonzalezen etxeratzea eskatu zuten

NABARNIZ/ Pablo Gonzalezen espetxealdia «prentsa askea isiltzeko beste ahalegin bat» zela salatzen zuten Nabarnizen, 200 lagunek baino gehiagok. Kazetariaren babesgabetasuna gaitzetsi eta askatasuna eskatu zuten: «Ez diote eman bere burua defendatzeko aukerarik. Bere bizitzako bi urte kendu dizkiote, bere errugabetasuna frogatu barik».



Aurrerapausoa eman zuten Lekuek jaialdiak

GERNIKA-LUMO/ Lau egunez, Gernika-Lumoko kale, plaza, txoko zein tabernak hankaz gora jarri zituen Lekuek festibalak. Hamaikagarren aldiak aurrerapausoa emateko balio izan zuela, eta izandako arrakasta ikusita, panorama musikalean «egonkortzen» ari zirela esan zuten antolatzaileek.





LGTBI+ udal diagnostikoa martxan jarri zuten

BEMEO/ Bermeoko LGTBI+ kolektiboaren egoera ezagutzeko, LGTBI+ udal diagnostikoa egitea erabaki zuen udalak, Hiruki Larroxagaz lankidetzan. Bermeo matxismorik eta LGTBI+ fobiarik gabeko «esparru askatzailea eta bizigarria» izatea nahi zuten. Ba-

nakako elkarrizketa sakonak eta LGTBI+ kolektiboko pertsonekin, udal ordezkariekin eta herriko eragileekin talde eztabaidak egin, eta herritar guztiei zuzendutako galdegia zabaldu zuten, «aurreiritziak, ezagutzak, jarrerak eta jokabideak biltzeko».



Euskal Karabanarako ekarpena

BERMEO/ 20. Euskal Karabanarako 2.715 kilo batu zituen Besaldek, 2023an baino 657 kilo gehiago. Osasun materiala eta ekarpen ekonomikoak ere jaso zituzten: elikagaiak erosteko 1.141 euro batu zituzten.




Hugo Aguilarren lasterketa

EREÑO/ Caja Rural-Alea taldeko Hugo Aguilarrek irabazi zuen 21. Ereño Udal Sari Nagusia. Bere taldekide Lucas Joseph Towers izan zen bigarrena, eta Eiser-Hirumet etxeko Iñaki Trujillok osatu zuen podiuma.



Urkiaga eta Gerrikaetxebarria nagusi, Ibarrurin

MUXIKA/ Itsasne Urkiaga eta Ander Gerrikaetxebarria zornozarrak gailendu ziren Ibaruriko Mendi Lasterketan. Gizonezkoetan, Arrolape Mendi Klubeko Ekaitz Lejarzegi ajangiztarra sailkatu zen bigarren eta Paul Goitisol gernika-lumotarrantzat izan zen podiumeko hirugarren postua. Emakumezkoetan, Zuriñe Frutos eta Alejandra Bueno de Santiago arabarrek osatu zuten podiuma. Eguraldi petrala gorabehera, 400 lagun inguru elkartu ziren lasterketan eta martxa bietan, eta Saltsamendi Kultur Elkarteko antolakuntza lantaldetik XI. aldiaren balorazio «oso positiboa» egin zuten.



Ekoetxea

Euskadiko Ingurumen Zentron Sarea

Zatoz **Ekoetxea Urdaibai** zentrorra eta modu jasangarriagoan bizitzen lagunduko dizuten **esperientziekin** goza ezazu!

Kontsultatu gure agenda hemen

Madariaga Dorretxea
San Bartolome, 35
48350 Busturia (Bizkaia)

Tlf: 94 687 04 02
www.ekoetxea.eus
info.urdaibai@ekoetxea.eus



 **ekoetxea**
Urdaibai

 **ihobe**
Ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



Emakumeen segurtasuna hobetzeko helburua

BUSTURIALDEA/ Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emakumeen segurtasuna hobetzeko totemak jarri zituen trenbide sareko eskualdeko zazpi geltokitan: Itxasbegin, San Kristobalen, Foruan, Institutuan, Lurgorriin, Muxikan eta Zugastietan.



Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren

BUSTURIALDEA/ Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, EAJk bere nagusitasuna galdu zuen Busturialdean, EH Bildu izan baitzen alderdi politiko bozkatuena. 10.997 boto lortu zituen, EAJk baino 428 boto gehiago; 10.569 boto izan ziren alderdi jel-

tzalearentzat. 2020ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta, 2.744 boto gehiago izan zituen koalizio suberantistak (8.253 izan zituen 2020an), eta 892 boto gutxiago izan zituen EAJk (11.461 izan zituen 2020an).



Arrizabalaga, Europako onenen artean

GERNIKA-LUMO/ Europako Pilota Txapelketan hiru urrezko domina lortuta, sailkapen orokorreko lehenengo postua lortu zuten emakumezko euskal pilotariak, tartean Olatz Arrizabalaga gernikarrak. Gizonezkoek urrezko domina bat eta brontzezko hiru irabazi zituzten eta txapeldunorde geratu ziren.



Pablo Gonzalezen aldeko Elkartasun jaia

NABARNIZ/ Nabarnizko eta Elantxobeko herrikideek antolatuta, Pablo Gonzalez kazetariaren aldeko elkartasun eguna antolatu zuten, haren urtebetetze egunean. Kazetariak gutun bidez bidalitako mezua irakurri zuten, eta herritarren-gandik jasotako babesa eskertu zuen bertan.

LABOTICA DE LA ABUELA

Zu zaintzen

Andra Mari, 1
94-465 36 52
Gernika-Lumo

Loreder
2006-tik

AMAIA SANCHEZ VALDELYRA
Dietista
diplomaduna

- Dietista
- Naturopatia
- Test epigenetikoak
- Terapia emozionala
- Akupuntura
- Estetika holistikoa

Barrenkale 2
Gernika - 946251154

%10ko deskontu rekortablea zerbitzu berrietan.

OBABA

LIBURUAK MUSIKA JOKOAK
ESKOLA ETA BULEGO MATERIALA

IPARRAGIRRE, 22 GERNIKA-LUMO
94-603 44 73 info@obabaliburuak.com
www.obabaliburuak.com

ROYO

ANCHOAS DE BERMEO S.L.
www.anchosadesbermeo.com

J.Carlos: 670 411 036 • Eusebio: 670 411 037
ft.: 94-618 64 29 • info@anchoasroyo.com
Landabaso industrialdea, 8. partz.-2.ezk.
BERMEO

**Santa Klara
Memoriaren gune
izateko konpromisoa**

GERNIKA-LUMO/ Gernika-Lumoko Bonbardaketaren 87. urteurrenaren egunean Iñigo Urkullu lehendakariak jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Klarisen ordena Santa Klarako moja-etxea erosteko akordio batera iritsi zirela, gune hori memoriaren espazio bihurtzeko. Bakearen Museoari ere bultzada eman gura zioten bertan: «Gure historiarako hain garrantzitsua den leku hau babesteko modurik onena iruditu zaigu. Gure helburua da Bakearen Museoari bultzada berria ematea bertan; komentu hau berarentzat lekurik onena izan daitekeela uste dugu». Lekuaren garrantzia ikusita erabaki zuten komentua memoria gune bihurtzea, eta, horretarako, komentua bera, eliza eta atzealdeko lursaila erostea: «Museoaren duintasuna eta erakargarritasuna indartzeko modurik egokiena da Bakearen Museoaren inguru honetara ekartzea. Horretarako, egin behar diren zaharberritze, moldaketa eta beharrezko inbertsioak egingo ditugu».



**Memoria ariketa eta elkartasun
isilaren hotsa, Gernikatik Gazara**

GERNIKA-LUMO/ Gernika-Lumoko Bonbardaketaren 87. urteurrenaren ekitaldi batez zuten udalerrria

Gernika-Lumoko Bonbardaketaren 87. urteurrenaren ekitaldi instituzionalak eta herrikoiek – 4 minutu, *Gernika Garretan* kale antzerkia eta kandelen ibilbidea – bat egin zuten. 4 minutu ekitaldian, Eñaut Elorrieta herriko musikariak eta Ikrame Benzyane palestinarrek piztu zuten Lobek Astrako babeslekuan jarritako sirena, eta Bakearen



Artisauak arduratu ziren Gernika Batzordeak Pasealekuan jarritakoa aktibatzeaz. Bestalde, XIV. Bakearen eta Berradiskidetzaren Sariatuan Mediterraneo-ko Justuak eta Bakearen Aldeko Borrokalariak saritu zituzten, eta William Kelly gogoratu zuten.

Argazki galeria:



Elantxobe, herri euskalduna!





TEAri buruzko jardunaldia, bigarrenaz

BERMEO/ Autismoaren Espektroko Nahasmenari buruzko (TEA) II. jardunaldia antolatu zuen Bermeoko AmaTea Elkarteak eta lortutakoagaz eta jendearen erantzunagaz «pozik» agertu ziren. Bermeoko Gurutze Gorriak jaso zuen Konpromiso Saria, «neoro eskaintako laguntza eta prestutasuna» eskertu zizkieten bertako kideei.



Kopa bizkaitarren etxera eraman zuten

GERNIKA-LUMO/ Athletic Clubeko ordezkariak Gernika-Lumoko Batzarretxera eraman zuten Errege Kopa. Hainbat ikastetxetako ikasleak hurbildu ziren jokalaria agurtzera. 1984an bezala, 2024ko garaipenak ere izugarrizko zurrunbiloa sortu zuen Bizkaian, eta ospakizunera batu ziren Bizkaiko Batzar Nagusian.



Gurpil biren gainean eta abiadura bizian

EREÑO/ Gernika Off-Road taldeak antolatuta, Cross Country lasterketa lehiatu zuten Ereñon. 109 gidari aritu ziren, lau kategoriatan banatuta. Josu Artola (senior maila), Alejandro Irigoien (gazte maila), Neus Parramon (emakumezkoak) eta Gaizka Fullaondo (beterano maila) izan ziren bizkorrenak. Euskal Herriko Txapelketarako puntuagarria izan zen.



Azoka ederra, eskaintzaz beteta

MORGA/ Morgako Azokaren 23. aldian askotarikoak eskaini zituzten 36 erakusmahaitan. Ikusteko, erosteko eta dastatzeko aukera paregabea egon zen. Sustabiz Fundazioko enpresak ere gozatu zuten batutakoek; harriak eta lastoak jasotzen, trontzan eta Iparraldeko jokoetan aritu ziren.

ATXONDOA 2006

BANAKETAK

Goiko Ibarra, 43-45 · GERNIKA-LUMO
94-625 14 34







BARRUTIALDE
INSTITUTUA

www.barrutialde.eus
944287829

Goi maila

- Produkzioaren programazioa
- DBH - ESO

Erdi maila

- Fabrikazio mekanikoko diseinua
- Batxilergoak

Mekanizazioa

- ZIG Zeregin ikaskuntza gela

Hasierako LH

- Instalazio eta altzari-homikuntza
- Arrotzeria eta altzarigintza
- PROGRAMAK ETA IKASTAROAK Duala, Erasmus+, Ikastaroak, Lan potts...

Especializazioa

- Elementu metalikoen fabrikazioa
- Zurezko fabrikazioa

zure etorkizuna gara!





I. Urdaibai rallya «arrakastatsua» izan zen

BUSTURIALDEA/ Urdaibai Motorsport talde sortu berriak antolatuta, I. Urdaibai Rallya lehiatu zuten. 60 eta 70 auto bitartean egon ziren irteera lerroan, antolatzaileen ahotan, «kopuru ezinhobea», eta denen artean maisuki nagusitu ziren Gorka Eizmendi eta Esti-

baliz Armendariz. Iker Etxeberriak eta Patricia Saizek lortu zuten bigarren postua. Antolatzaileen esanetan, «arrakastatsua» izan zen; bai parte hartzaileak, bai ikusleak estreinako aldiagaz «asebeteta» agertu zirela nabarmendu zuten.



Gaztetxea biziberritzeko nahia

BUSTURIA/ Gaztetxea berriz ere martxan jartzeko helburuagaz batu zen Busturiko gazteria, eta horren adierazle izan zen Otsozulo Gaua. Busturiko Gazte Asanblada berria eratu, eta gau hori izan zen euren lehen ekintza.



Udal gimnasio berria, martxan

GAUTEGIZ ARTEAGA/ Herritarrek «gehien errepikatutako eskariari» erantzunez, udal gimnasio zerbitzu berria zabaldu zuten Gautegiz Arteagan. Herritarrek 07:00etatik 23:00etara erabili ahal izan zuten.

Larrialdi zerbitzuetan «pertsonal eskasia» salatu zuten

GERNIKA-LUMO/ SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT eta SAE sindikatuek Barrualde-Galdakao ESiko Zuzendaritzari eskatu zioten Gernika-Lumoko Ospitaleko erizainen eta erizaintzako laguntzaileen lantaldeak handitzeko eskaerari erantzuteko, «herritarrei zerbitzu osoa eta kalitatezkoa bermatu ahal izateko». Horien berbetan, lantaldea handitzeak «hobekuntzak» ekarriko zituzkien herritarrei, itxaronaldiak arindu, eta larrialdietako pazienteen segurtasuna bermatuko zukeelako: «Horrelako ospitale baterako ezinbestekoa da». Erizainen eta erizaintzako laguntzaileen lantaldeak urteak zeramatzan Barrualde-Galdakao ESiko Zuzendaritzari langileak falta zirela eta lan karga handiegia zutela salatzen. Azaldu zutenenez, larrialdi zerbitzuetan bizi arriskuko egoerei erantzun behar zietenean, langile guztiek –bi erizainek eta laguntzaile batek– dena utzi behar zuten larrialdi hori artatzera joateko, protokoloak hala agintzen zuelako, eta, ondorioz, gainerako larrialdi zerbitzuak –boxak eta triajea– ez ziren bermatuta geratzen: «Erizainen eta erizaintzako laguntzaileen falta arriskutsua da, larrialdiren bat gertatuz gero, biztanleria arretarik gabe geratzen baita».



**ERRIGOITIKO
UDALA
EUSKARAREKIN
BAT!**

Pablo Gonzalezek senide eta lagunak bisita jaso zuen

NABARNIZ-ELANTXOBE/ Oihana Goirienak, seme zaharrenak eta adiskide bik aurrez aurreko bisita izan zuten Pablo Gonzalezegaz, Poloniako Radomgo espetxean. Bere aurkako karguak aurkeztearen eta epaiketaren esperoan bi urte eta hiru hilabete zeramatzan han. Goirienarentzat hirugarren bisita izan zen, eta «osasun aldetik ondo eta esperantzagaz» topatu zutela adierazi zuen: «2023ko ekainean, seme nagusiak, Pabloren amak eta nik txarrago topatu genuen; amorratuta igarri genuen, suminduta. Oraingoan, lasaiago ikusi dut, eta lagunak bisitaldiarekin pozarren».



Nuklearren kontrako borrokara atzera begirada

EA/ 40 urte atzera egin, eta Lemoizko, Debako eta Ea eta Ispasterko zentral nuklearrak egiteko lanak behin betiko gelditu izana gogoratu zuten Ean. Euskal Herriko historia antinuklearra izan zuten oinarrian bertako Enaden Begiak Elkarteak antolatutako jar-

dunaldiek. Hitzaldia, eztabaida eta erakusketak egin zituzten asteburu batez. Euskal Herrian sortutako mugimenduaren botere «ikaragarria» nabarmendu zuten, baita euskal kostaldearen defentsarako batzordearen lana gogoratu ere.



Eskola txikietako ikasleen egun handia

IBARRANGELU/ 2024ko Busturialdeko Eskola Txikien Jaia Ibarangelun ospatu zuten. Ibarangeluko, Eako eta Elantxobeko ikasleak zeuden Haizeder Eskolak antolatu zuen, eta bertako, Gauteziz Arteagako, Busturiko, Mundakako eta Muxikako eskola publikoetako ikasleek giro ederrean batu ziren.



Senidetze hitzarmena sendotu zuten

BUSTURIA/ Busturiak eta Txekiar Errepublikako Hradištškok maiatzean Hradištškon sinatu zuten senidetze akordioa. Abuztuan hango ordezkariak joan zen Busturira. 1945eko apirilaren Hradištškoko kontzentrazio esparru nazian fusilatutako Anjel Lekuonaren memoria berreskuratzeko batu zuten.

BAR SANTI
Zigor-Aria

Pintxoak • Rabak • Errazioak
• Sasoiko produktuak
• Afariak eta bazkariak
• Udan, gure hegaluzea!

94-627 57 17
660 880 208

Portu, 13 • ELANTXOBE

BAKE-EDER

PABLO PICASSO 11, GERNIKA

692 71 99 34

atsedena eta zu

bed's

KOLTXOIAK
EUSKARRIAK
BURKOAK
OHEKO ARROPA

Don Tello, 19
94-625 57 68
48300 GERNIKA

Atalde, 2
94-602 82 46
48370 BERMEO

Alluitz, 1
94-400 59 80
48200 DURANGO

beds.es



Hamazortzi postu ipini zituzten Lameran.

Bermeoko 30. Arrain Azoka sustraietara bueltatu zen

BERMEO/ Azokaren proiektuaren sortzaile Bego Gangoitik jaso zuen Hegaluze Saria

Arrain Azokaren 30. urtemuga sustraietara bueltatuz ospatu zuten, hiru eguneko egitarau oparoagaz. Azokaren proiektua sortu zuen Bego Gangoitik jaso zuen Hegaluze saria, berak esan modura, azoka antolatzaren aritutakoen eta ari ziren guztien izenean. «Aitzindariak izan ginen



orain dela 30 urte. Erreferenteak izan gara eta horrela jarraitzeko apustua egingen dugu», esan zuen Nadia Nemeh Bermeoko alkateak. Besteak beste, emakumezkoek itsas munduan egindako lana nabarmendu, eta Palestinari elkertasuna adierazi zion.

Argazki galeria:



338 ikasle, zientziak eta teknologiak batuta

GERNIKA-LUMO/ Lea Artibaiko eta Busturialdeko Kooperatiben Mahaia Elkarteak antolatuta, Zientzia eta Teknologia Eguna egin zuten, Astran, eta Busturialdeko DBH 4. mailako 338 ikasle batu zituzten, «inoiz baino gehiago». Hirugarren urtez antolatu zuten, eta ikastetxeetan ikasitakoa praktikan jarri zuten hamahiru tailerretan.



36. Garriko Eguna, eskualdeko bertsolari gazteekin

MUXIKA/ 36. Garriko Egunean, Busturialdeko 90 gazte inguruk parte hartu zuten Bizkaiko Bertso Idatzien Eskolarteko Busturialdeko Finalean. Bertsoak osatuta, Janire Arrizabalagaren, Naroa Iturriozen, Enara Gallastegiren eta Ixone Asategiren bertso saioan gozatu zuten. Hala, bertsolaritza «ikastetxeetatik kanpo ateratzearen» helburua bete zuten.



Euskaraz biziz gara!



FORUKO UDALA
Elejalde Auzoa, 1
94-625 51 16



Urteurrenjaia, giro ezin hobean

BERMEO/ San Frantzisko Herri Eskolaren 50. urteurrena ospatzeko jaian, herri bazkaria, puzgarriak, futbolin erraldoia, dantzaldia, photocalla, oroitzapenen kodearnea, karaokea eta galdera jolasa izan zituzten. Ume, gazte zein nagusi batu ziren; ikasle, irakasle eta guraso zirenak zein izandakoak. Hainbat dj saio eta Joxpa erromeria ere izan zituzten egun handia musikatzeko.



Inoizko parte hartzerik altuena

BERMEO/ Bermeoko V. Warhammer 40.000 txapelketan 30 talde eta 180 pertsonako parte hartzea egon zen, «inoizko altuena» eta horiengandik jasotako *feedbacka* ere «inoiz baino hobea» izan zen. Talde garailea Gasteizko BattleBunker izan zen, eta Diamond Dogs eta Conclave sailkatu ziren atzetik.



50 urtez, «danona» aldarrikatzen

GERNIKA-LUMO/ 50 urte bete zituen Allende Salazar Herri Eskolak. Hitzorduz bete zuten urteurrena, eta denetan ere jendetza batu zen: bertso bazkaria, mendi martxa, ikasle eta irakasle ohien afaria, Porrotxen eta Marimototsen ikuskizuna eta egun osoko egitaraua eduki zuten jaialdi mundiala. Azken horretan, ospakizuna herrira, Pasealekura eroan zuten.



'SOS Rafah' lelopean, elkarretaratzeak

BUSTURIALDEA/ Gernika-Palestina Deialdi Herritarrak zabalduko deialdiak erantzun zabalak jaso zuten, Ean, Ibarrangelun, Ajangizen, Bermeon, Gernika-Lumon, Muxikan eta Mundakan. Rafahek pairatzen zuen eraso larria eta Palestinar herriarekiko genozidioa salatzen zituzten.

ITSOSOTIK BIHOTZERA

BERMEO BHI Bermeoko BHI Bermeoko Institutua

944288066 zuzendaritza@bermeobhi.eus

BURDINZARRA
Eraikuntza Metalikoak

Egitura Metalikoak
Industria Nabeak
Errementaritza
Tarteko Solairuak
Burdin hesiak
Altzairu herdoilgaitza

e-Maila: burdinzarra@burdinzarra.com
Tel.: 94 625 04 23 Faxes: 94 625 76 30
Txaporta Ind. 1 Zk - 48300 Gernika

616 93 64 11



Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena

BERMEO/ Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko askotariko jarduera ugari egin zituzten 2024an, han eta hemen. XX. mendeko euskal artistarik garrantzitsuenetakoa izan zen Basterretxea, eta Bermeon haren «zabaltasuna eta sakontasuna»

gogoratu zuten, artistaren gizarte konpromisoak eta lanek Euskal Herriko iruditeria kolektiboan izan duten eraginagaz batera. Herriko hainbat erakunde eta entitate kulturelek eta udalak bat eginda, jarduera programa bat aurkeztu zuten.



Ikastetxeetako dantzari finak

GERNIKA-LUMO/ Allende Salazar Herri Ikastetxeke, Barrutia Eskolako, Mertzede Ikastetxeke, San Fidel Ikastolako eta Seber Altube Ikastolako ikasleek erakustaldia eskaini zuten Gernika-Lumoko Eskolarteko Dantzari Egunean.



Ikasleen sormena, oholtzara

GERNIKA-LUMO/ Umeak gizarteratzeko bidea jorratzeko, euskararen erabilpena areagotzeko eta ahozkotetasuna lantzeko helburuagaz, Eskolarteko Antzerki Astea egin zuten. Zazpi ikastetxetako ikasleak igo ziren Lizeo Antzokiko oholtzara.

Puntu seguruen sareagaz, indarkeria matxistari aurre

BERMEO/ Herri seguruago bat lortzeko bidean, Bermeoko Udalak gune seguruak sortu ohi zituen, indarkeria matxista jasotzen zutenei eta horien ingurukoei babesa emateko. Herrian emandako indarkeria matxista kasuen gorakadak bultzatuta, Berdintasun Saila puntu seguruen sarea osatzen hasi zen, herriko ostalari eta merkatariekin. Eraso jasandakoak lehenengo momentuko babesa eta laguntza jasotzeko aukera izan zuten puntu horietan. Proiektuaren helburua zen herritarrengandik gertuen zeuden sare naturalak aktibatzea: «Puntu seguruak edozein motako indarkeria matxista jasotzen dutenei babesa emateko sortutako puntuak izango dira, baita eraso matxistarik gabeko puntu babestuak ere. Gertuen daukaten konfiantzazko puntua izatea da helburua», azaldu zuen Berdintasuneko zinegotzi Arantza Ormaza Tarantinok. Puntu seguruetak jabe eta langileek indarkeria matxista kasuen aurrean nola jokatu jakiteko oinarrizko formakuntza jaso zuten; era berean, erasotua babesteko neurriak ezagutu zituzten. Berdintasun Saileko langileak tabernaz taberna ibili ziren puntu seguruaren sarearen proiektua aurkezten.



Gautegiz
Arteagako
Udala

Herriko Enparantza, 1
94-625 29 53
udala@gautegizarteaga.eus

Artian euskaraz

www.gautegizarteaga.eus

Herritarrekin komunikatzeko bide berriak sortu zituzten

MURUETA/ Herritarrak entzun eta haiengandik gertuago egoteko asmoz, Facebook, Instagram eta X sare sozialetan kontuak ireki zituen Muruetako Udalak. Komunikatzeko bide «arin eta aktibo» horien bidez, udal informazioa jaso eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten muruetarrek. «Gobernantza eredu garden, zabal, partekatu eta interaktiboan sakontzeko eta sendotzeko aukera eskaintzen dute. Leiho digital berriek, orain arte izan ditugunekin batera, informazioa zabaltzeko eta herritarrek parte hartzeko eraginkortasuna eta paperaren erabilera aurrezteko ekarriko dute», azaldu zuen Julen Karrion Lamikiz alkateak.



Dalia fabrika zaharra eraisteko lanak hasi zituzten

GERNIKA-LUMO/ Dalia fabrika zaharra eraisteko lanen hasiera salatu, eta Guggenheim Urdaibai proiektua bertan behera uztea eskatu zuten, hainbat plataformek deitutako elkarretaratzean. Gogoratu zuten fabrikaren zati ba-

tzuek balore etnografikoaz gain, interes historikoa ere bazeukatela. «Hartu beharrekoak ziren osasun eta prebentzio neurriak ez diete inporta. Hemen amianto dago, eta jendeari, inguruko auzokideei ez zaio horren berri eman».



Eli Pagola txapeldun, Argi Baltza sariketan

MUXIKA/ Lilibertsok antolatuta, laugarren Argi Baltza Bertsolari Gazteen sariketaren finala jokatu zuten Muxikan, eta Eli Pagolak jantzi zuen txapela. Ajangizzen, Mendatan eta Gautegez Arteagan jokatu zituzten kanporaketak. Antolatzaileek laguntzaileen lana eskertu zuten, tartean, lau udalena.



ETSren «jarduera ilegal» salatu zuten

GERNIKA-LUMO/ Udalak neurketa akustikoak egin zituen ETSren plataforma logistikoaren pareko etxebizitza inguruan, eta udal ordezkariak ezer jakinarazi ez zieten arren, bizilagunek informazioa lortu zuten. «Neurketek 80 dezibelitik gora jaso zituzten; ETSren jarduera legez kanpokoa da».

Gestoria
COR
Aholkularitza

Iparagirre, 8
GERNIKA-LUMO
tf.: 94-625 06 33
gestoria@gestoriacor.com
www.gestoriacor.com



- Zesta-puntarako poltsak
- Altzariak, sofak, aulkiak, oheburuak... geuk tapizatzen ditugu!
- Alfonbrak, neurrira
- Gortinak, inpresio digitalarekin
- Kotxeak eta txalupak jantzen ditugu
- Camper furgonetentzako koltxonetak
- Tapizatu bereziak
- Geure tailerra, hiru belaunalditan

Fray Martin de Murua, 2
GERNIKA-LUMO
94-625 21 03
www.tapiceriacrespo.com



Crespo
Tapizatu eta sartu orain

Suhiltzaile talde finko baten eskaria, aldundiari

BERMEO/ Bizkaiko Foru Aldundiari Bermeo suhiltzaile talde finko batez hornitzeko eskatzea onartu zuten osoko bilkuran, EH Bildu eta Guzaren aldeko botoekin; EAJ abstentitu egin zen. Onartutako mozio horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak Bermeoko larrialdi zerbitzuen egoerari buruzko azterketa egitea eskatzea ere jasotzen zen. Udal gobernuaren ustez, ezinbestekoa zen suhiltzaile zerbitzu «hurbil eta eraginkorra» izatea: «Herritarren segurtasuna bermatzea eta babestea edozein administrazio publikoren funtsezko lehen-tasunetako bat da».

Gogoratu zuten aurretik ere, EH Bildu gobernua zegoela, Bermeoko Udalak udalerriari suhiltzaile talde finko bat jartzeko eskaera egin ziola Bizkaiko Foru Aldundiari. Eskaera hori «ukatu egin zieten», aipatu zuen Nadia Nemeh Shomaly Bermeoko alkateak. Azaldu zuen Bermeotik hurbilen zegoen suhiltzaile taldea ia 30 minutura zegoela, Arratzun, eta erantzun-denbora «ez zela nahikoa» berehalako esku hartzea behar zuten larrialdiei «eraginkortasunez» erantzuteko.

Era berean, Bermeoko Herri Babesako boluntarioei eskerrak eman zizkien, «euren lan ordainezinatik».



Gernika-Lumoko Merkatu plazaren (irudian) eta ospitalearen aurrean elkarretaratzeetan batu ziren.

Ospitaleko larrialdi zerbitzuan langile falta zutela salatu zuten

GERNIKA-LUMO/ Erizain eta erizaintza laguntzaileen eskasia azalatu zuten

Osasungintza alorreko beharginek beraien ezinegona eta desadostasuna plazaratu zituzten, Gernikako Ospitalearen aurrealdean nahiz Merkatu plazan. Agerraldietan aipatutako ospitalearen larrialdi zerbitzuan zeukaten erizain eta erizaintzako laguntzaileen eskasia salatu zuten. Elkarretaratzeekin bat egin zuten eskualdeko pentsiodunen mugimen-

duak zein sindikatuen gehiengoak: SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT, SAE eta ESK-ek.

Osakidetzari egiturazko neurri eraginkorrak eta sakonagoak hartzeko eskatu zioten. «Egoera oso agerikoa da: erizainen eta erizaintzako laguntzaileen falta oso larria da, eta horrek eragotzi egiten die erabiltzaileei kalitatezko asistentzia medikoa bermaturik edukitzea. Egoera prekario horrek, osasungintzako langileei eragiteaz gain, arriskuan ipintzen ditu hala pazienteen segurtasuna, nola eman beharreko arreta maila; ezin dugu onartu egoera honek bere horre-

tan jarraitzea», azaldu zuten. Ospitaleko boxetako eta triaje eremuko segurtasuna urte osoan zehar bermatzeko gai izango zen eraldaketa «guztiz nahitaezkoa» zela nabarmendu zuten beharginek: «Larrialdiren bat gertatzen denean, profesionalak bai bereizketa gunea, bai boxak inongo arretarik gabe utzi behar dituzte, hau da, kokaleku horietan dauden pazienteen egoera gainbegiratu duen langile barik».

Horrenbestez, aipatutako paziente horien segurtasuna «arriskuan» zegoela esan zuten, «berehalako konponbidea eskatzen duen egoera jasanezina sortuz».

www.gernika-lumo-
euskaraz.eus



GERNIKA-LUMOKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
Foru Plaza 3
946 27 02 05



Institutuko ikasleek audiogidak sortu zituzten

BEMEO/ Bermeo BHIko DBH2. ikasleek bisitariarentzat audiogidak sortu zituzten, zortzi ibilbidegaz osatuta. Eurentzat gune interesgarrienak hautatu, eta QR kodeak ipini zituzten horietan. Bermeoko Turismo Bulegoagaz lankidetzan, informazioa hiru hizkuntzetan jarri zuten. Proiektuagaz ikas-komunitatea «indartu», eta herriari buruz gehiago ikasteko aukera izan zuten.



«Egiturazko arazoak» konpontzeko eskatzen

GERNIKA-LUMO/ Gernika-Lumoko udal langileek bizi zituzten arazo estrukturalak salatu zituzten. «Azkenengo urteetan areagotu» zirela esan zuten. 2020an kanpo enpresa batek egindako analisisian oinarrituta azaldu zituzten arazoak, eta horiek konpontzeko erabakiak hartzea eskatu zioten udal gobernari. Lan-taldea egonkortzeko beharra zegoela nabarmendu zuten.



221 kilo elkartasun, II. Bermeo Bizi Festan

BERMEO/ Txirrindularitzarekiko zaletasuna bultzatzeko eta elkartasuna hauspotzeko asmoz, 120 lagunetik gora bildu zituen II. Bermeo Bizi Festak, eta Bizkaiko Elikagai Bankuarentzat 221 kilo elikagai batu zituzten. 8 km-ko bizikleta ibilbidea egin zuten auzoetan barrena. Gero, puzgarriak, bizikleta jokoak eta aurpegi margotzailea eduki zituzten.



Giro ederrez eta lokatzez betetako eguna

MUXIKA/ Oxygastra Curtisi taldekoek txupina jaurti eta, dantzek, erromeriak, herri bazkariak, bertso saioak eta kontzertuek osatu zuten Muxikako XIII. Gazte Eguneko egitaraua. Porru erromeria eta Dj Oier Mendizabalen saioa bertan behera utzi zituzten, eurigatik, baina jendez lepo bete zen San Roman, batez ere gauean.

Grupo

Duintzen®

TORREZURI
MASKURIBAI
SANTA BÁRBARA

www.grupoduintzen.com

www.opticaseguren.com

E
**OPTIKA
EGUREN**
1966tik

OPTIKA
Domingo Bernaola Plaza,1
94-625 03 23
GERNIKA-LUMO



688 77 24 03
Eskariak watsappaz
egiteko aukera



Eskualdeko dantzari txikien eszenatoki bereziena

BUSTURIA/ Busturialdeko Dantzari Txikien Egunaren bosgarren zikloa hasi zuten Busturian; izan ere, udalerrri horretan hasi eta urte urte gainontzeko herrietatik igarotzen zen, zikloa bukatu eta berriz ere hasierako lekura bueltatuta. Bakioko Itxas Aldeko, Bermeoko

Alkartasunako, Busturiko Irrintzi Alaiko, Foruko Urdaibaiko, Gernika-Lumoko Elai Alaiako, Gauteziz Arteagako Artie Dantza Taldeko, Ibarrangeluko Loreako eta Ibarruriko Baso Txoritzuko kideek dantzaldi ederra eskaini zuten, beste behin.



Herriko nekazal azokan batuta

GAUTEGIZ ARTEAGA/ Lehen sektorea bultzatu, eta eskualdeko ekoizleei ikusgarritasuna emateko, herri azoka antolatu zuen Gauteziz Arteagako Udalak. Herritarrak, ekoizleak eta alkatea «oso pozik» agertu ziren azokak izandako erantzunagaz; salmentak «oso ondo» joan zirela adierazi zuten.



Ibilgailu anfibio onenaren bila

ELANTXOBE/ Urdaibaiko Ibilgailu Anfibioren Eskolarteko Duatloia estreinako ekitaldia egin zuten Elantxoben. Eskualdeko launa hezkuntza zentrok eta enpresak elkarlanean parte hartu dute, hiru probatan. Arrantza egiteko eta arrantza banatzeko ibilgailu bat sortzea izan zen beraien egitekoa.

Udala, energia eraginkortasuna hobetzeko lanen

EA/ Eako udaletxearen energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak egin zituzten. Kanpo Isolamendu Termikorako Sistema ezarri zuten mendebaldeko faltxadan, baita teilatua berritu, leiho berriak ipini eta geotermian oinarrituriko berokuntza eta hozketa sistema instalatu ere.

Lan horietarako Bizkaiko Foru Aldundiaren Herriak egiten programatik 100.000 euroko diru laguntza jaso zuen udalak. Birgaitze energetikoa egiteaz aparte, ur kanalizazioak berritzeko, harreara gunea atontzeko eta altzariak aldatzeko aprobeztatu zutela azaldu zuten. Epe berean, gainera, Eskolondon aerotermia instalazioa berritu zutela jakinarazi zuten udal ordezkariak. Kasu horretan ere, dirulaguntza eskuratu zuen Eako Udalak, klima aldaketaren eta trantsizio energetikoren arlokoa, hain zuzen ere. 55.112,05 eurokoa izan zen jasotako laguntza.

Hori horrela, beraz, udal eraikin guztiak «energia berriztagarrien bidez berotzeko aukera» zeukatela azpimarratu zuten: udaletxea eta Natxikutuko bolatokia geotermia instalazio banari esker berotzen ziren, Eskolondo aerotermia bidez, eta Bedaronako txokoa, berriz, biomasarekin — pellet berogailu baten bidez—.



Ibarrangelun euskara, kultura eta natura badabiltza!

Ibarrangeluko Udala

Etxebizitza turistikoentzako baimenak, etenda

MUNDAKA/ Mundakako Udalak erabaki zuen urtebeteko epean ez zuela etxebizitza turistiko berriak erregistratzeko baimenik emango. HAPON beharrezko aldaketa prozesua abiatu zuten, lizentziak eteteko. Udal gobernua osatzen zuten EH Bildu eta Herritar Alternatibakoen zein oposizio-ko EAJkoen aldeko botoekin onartu zuten neurri hori hartzea, osoko bilkuran. Jeltzaleek nabarmendu zuten neurria «gura baino beranduago» ailegatu zela. Emandako datuen arabera, Mundaka 2.000 biztanleko populaziora iristen ez bazen ere, «80 eta 90 etxebizitza turistiko artean zeuden».



Mende laurdena, danborren erritmorra

BUSTURIA/ Atxurkulu Emakumeen Elkarteak bultzatutako Busturiko danborradak 25 urte bete zituen, eta urtemuga berezia egun guztiko egitarauagaz ospatu zuten. Ume eta nagusi artean, 80 bat herritar batu ziren danborrak jotzen, eta 120 bat herri bazkarian.

Besteak beste, normalean jotzen ez zituzten «lau kantu berezi» eskaini zituzten. Gainera, ibilbidean bizitakoak oroitzeko eta belau-naldi berriei transmititzeko helburuagaz, erakusketa ipini zuten, Altamirako Kultur Etxean.



Esnatu programa ezarri zuten Bermeon

BERMEO/ Aldundiak Bermeora zabaldu zuen indarkeria matxistaren eta sexu erasoen biktimei arreta psikologikoa emateko zerbitzu deszentralizatua. Teresa Laespada Enplegu, Gizarte Kohesio eta berdintasuneko foru diputatuak eta Nadia Nemej Bermeoko alkateak Esnatu programa ezartzeko lankidetzat sinatu zuten.



Zine Klubak egindako lana aitortu zuten

GERNIKA-LUMO/ Zine Klubaren lana aitortu eta omendu zuten Gernika-Lumoko Kultur Etxean. 40 urteko ibilbidean, «era guztietako filmak eskaintzeko eta zazpigarren artean herritarrak hezteko» elkarteak egindako jarduna azpimarratu zuten.



EKIN
AUTOAK
GERNIKA



BIZKARGI
AUTOAK
GERNIKA



AMUNAGA 4, GERNIKA / 94 627 02 69 / www.ekinautoak.com

Eleizalde Ikastola

HH0-1 matrikula urte osoan zabalik



Hartu hitzordua eta etorri gu ezagutzera!

📞 94 618 75 93

✉ bermeo@ikastola.eus





Ereño Gorria kareharria, Nazioarteko Ondare Harri

EREÑO/
Ereño Gorria Nazioarteko Ondare Harri izendatu zuen ZGNBk

Zientzia Geologikoen Nazioarteko Batasunak Nazioarteko Ondare Harri izendatu zuen Ereño Gorria kareharria, K.o. I. mendetik arkitekturan zein eskulturaren izandako erabileragatik. Horrela, harri gisa izendatutako 50 harrietako batean bihurtu zen Gautegiz Arteagan eta Ereñon ustia-


tutako harria. Gautegiz Arteagako Andrabide harrobian eman zuten aitortza horren berri. Hain zuzen ere, harrobi hori Bizkaiko Ondare Historiko izendatu zuten eta Bizkai, Araba eta Gipuzkoako zein Espainiako Interes Geologikoko Guneetako bat zen.

Laura Damas EHuko Geologia saileko ikerlari eta kareharria Zientzia Geologikoen Nazioarteko Batasunari aurkezteko ekimenaren sustatzaileak azaldu zuenez, aitortzak tokiko harriari balioa ematen zion: «Askotan, lanak bereizi bari egiten dira eta paisaia-

ren eta hiriko elementuen nortasuna galtzen da, globalizazioaren eta moda iragankorren mesedetan. Ondorioz, aitortza honek gure ondare kulturala aberastu duen harri apaingarriaren ezaugarri geologikoei balioa ematen die». Bestalde, harri natural horren erabileraren historikoak milurtekoetan zehar zibilizazio askok izandako bilakaera hobeto ulertzen laguntzen duela azpimarratu zuen; izan ere, harriz eraikitako monumentuak eta harrobi historikoak identifikatzea zen batzordearen mandatueta-ko bat.

Haizederreko eraikin berria egiteko, 9,7 milioi euro

EA/ Hezkuntza sailak iragarri zuten Natxituko Haizeder eskolako eraikin berria egiteko 9.795.929,08 euro (BEZ barne) inbertituko zituztela, eta obra lanak 2025eko lehen hiruhilekoan hastea aurreikusituztela, 21 hilabeteko exekuzio epeagaz. Jakinarazi zuten lanek irau bitartean, ikasleek Ibarrangelun jasoko zituztela eskolak. «Eraikin berriak 2.737 metro koadroko azalera edukiko du, bi solairutan banatutako egitura izango du, eta eskolak hartzen duen orube berean eraikiko da. Beheko solairuan Haur Hezkuntzako gelak, sukaldea, jangela eta instalazio gelak egongo dira, eta lehenengo solairuan, Lehen Hezkuntzako gelak, tailerrak, administrazio, zuzendaritza eta irakasleen gunea eta liburutegia». Eraikin ekoeraginkorra diseinatu zutela azpimarratu zuten, energia berriztagarrien eta material jasagarriaren aldeko apustua eginez.



Kamiñoko

Erretegia

Gernika-Bermeo errepidea
MURUETA
94-625 51 46
kaminokomotxo.com



Autobusa herri barrutik pasatzeko aldarria

MUNDAKA/ Aldundiak Mundakako Goiko Kaletik herriaren goiko aldeko zeharbidera aldatu zuen Bizkaibusen geralekua udako hilabeteetan, eta haserrea eta ardura sortu zituen herritarren artean. Elkarretaratzeetan batu ziren Mundakan eta Bilboko aldundiaren Garraio, Mugikortasun eta Turismo Sailaren egoitzaren aurrean, eta sinadura bilketa ere egin zuten.



Gaztelugatxeko kala garbitu zuten

BERMEO/ Gaztelugatxeko kala plastikozko hondakinez garbitzeko hitzordua jarri zuen Bermeoko Udalak, Lurgaiaren eta Herri Babesaren laguntzagaz. 50 boluntariok askotariko zikinkeriak atera zituzten. Plastikoa itsas inguruneari eragindako «arazo larriari» buruz sentsibilizatu gura izan zituzten herritarrak.



Txipiroi Swim proba berreskuratu zuten

EA/ Lau urteren ostean, Txipiroi Swim 3.000 m-ko itsas zeharkaldia lehiatu zuten. 92 igerilari batu zituen probak, eta Izei Carbo eta Garazi Bengoetxea gernika-lumotarrek irabazi zuten. Umeek, berriz, 300 metroko tartea osatu zuten igerian. Aurreikuspenak gainditu zituztela esan zuten antolatzaileek: «Zoragarria izan zen. Ezin hobeto irten zen dena».



Hamar pilotari, horma bakarreko lehian

AJANGIZ/ Bederatzigarren urtez antolatu zuten Horma Bakarreko Pilota Txapelketa, Ajangizen. Hamar pilotarik bost bikoteko desafioa lehiatu zuten, eta Okamika gizaburuagarrak eta Uribe leioarrak jantzi zituzten txapelak, Atutxari eta Izagirri 19 eta 22 irabazita.

f i

FERMIN BERRIA

GERNIKA
DOMINGO BERNAOLA 1
94-625 38 88

Geuzetxuek
www.geuzetxuek.com
670 99 28 09 · 94-688 25 42
geuzetxuek@gmail.com
Askatasun bidea, 1 BERMEO



Urdaibaiko Organoak kontzertu zikloak, 20 urte

BUSTURIALDEA/ *Organoak eta ahotsa* izenburupean, Urdaibaiko Organoak-Joxe Mari Eguileor jaialdiaren 20. aldia ospatu zuten uztailaren 13tik abuztuaren 15era. Hamabi kontzertu eskaini zituzten, Ibarrangelun (ezkerreko argazkia), Gautegez-Arteagan,

Kortezubin (eskumako argazkia), Gernika-Lumon, Arratzun, Bermeon, Mundakan eta Busturian. «Urdaibaiko Organoak jaialdiari esker, Busturialdea-Urdaibaik, Bizkaiak eta Euskal Herriak organo eta harmonium musikaren kultura berreskuratu dute».



Giro ederra, mendi martxan

KORTEZUBI/ XVII. Mendi Martxan «giro bikaina bezain ederra» sortu zen herri inguru zein mendi magaletan. 320 lagun inguru elkartu ziren: 110 lagun inguru izan ziren ibilbide luzean, eta 210 inguru laburrean.



Ia 500 lagun mendi martxa

ELANTXOBE/ Goi-goitik iritsi zen Elantxobeko Mendi Martxa bere hamargarren urtemugara. Euriari aurre eginez, ia 500 lagun elkartu ziren. Bi ibilbide eduki zituzten akeran, 11 eta 22 kilometrokoak.



Lagan 36ko gerra garaiko jaurtigai bat desaktibatu zuten

IBARRANGELU/ Ertzaintzaren Lehergailuen Unitateak 36ko gerra garaiko jaurtigai bat desaktibatu zuten uztailaren 26an, Ibarrangeluko Laga hondartzan. LIUko espezialistek emandako datuen arabera, 81 milimetroko kalibreko jaurtigai mortero bat zen, 38 zentimetroko luzerako eta 4 kiloko pisuduna. Jaurtigaiak karga leherkor bat zuen eta espoleta bat. Hondarrean erdi lurperatuta zegoen obus baten abisua jaso zuten SOS Deiak-en, 13:30ak aldera, eta Gurutze Gorriko kideek eta hondartzeko sorosleek hondartzako gunehori moztu zuten. Gernika-Lumoko ertzain-etxeko ertzainak heltzean, segurtasun-dispositiboa aktibatu zuten, eremua hesituz. Lehertu gabeko jaurtigaia zela identifikatu ostean, lehergailuen taldekoek toki seguruago batera mugitu zuten jaurtigaia, «errazago eta segurtasun osoz» desaktibatuzko. 15:30ak aldera dispositiboa altxatu zuten: «Ertzaintzako LIUK parte hartu zuen dispositiboan, Gernikako ertzain-etxeko patruilen laguntzagaz».



Maier eta euskara,
gure lana eta gure hizkuntza

Arabieta industrialdea z/g
48230 Ajangiz (Bizkaia)
www.maier.es





Garai bateko portu txiki bezain indartsua islatzeko bilduma

ELANTXOBE/ Elantxobeko «antzinako gertaerak islatzeko helburuagaz», 1960tik gaur arteko ontzien argazkiekin osatutako erakusketa ipini zuen Asier Guenaga Landabaso, Elantxobeko Udalaren laguntzagaz, Tinglapean: «Batez ere gazteenek herriaren historia ezagutzea eta izandakoaren eta gaur egun denaren arteko aldeaz konturatzea zen asmoa».



Folklore jaialdiak, Egipto eta Portugalgo dantzekin

BERMEO-MUNDAKA/ 36. Bermeoko Nazioarteko Folklore Jaialdia eta 29. Mundakako Nazioarteko Folklore Jaialdia ospatu zituzten. Ikuskizun ederrak eskainiz, Egiptoko El Shams Ballet Group eta Portugalgo Grupo Etnografico Terras de Cambra taldeetako ki-

deek euren dantzak eta kultura erakutsi zituzten, hurbildutako herritarren gozamenerako. Beste urte batez, bi udalerrietako erakustaldiak arrakastatsuak izan ziren, eta bertakoek zein bisitariek emanaldiak antolatzea eskertu zuten.



Senegalgo Eguna, zapoz eta kolorez betea

BERMEO/ Senegalgo Eguna egitarau bete-beteagaz ospatu zuten. Ume eta nagusientzako ekintzak egon ziren; Senegalgo musika, dantza tradizionalak eta gastronomia bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaini zuten. Kultura eta ohiturak erakustez gain, futbol partidua ere jokatu zuten Itxasganen.



Bizipista, modu seguruan gozatzeko

GAUTEGIZ ARTEAGA/ Bizikletan modu seguruan aritzeko kirolgune natural berria zabaldu zuten Gautegiz Arteagan: Bizipista. Zirkuituaren inaugurazio ekitaldian, Gartiape Kirol Klubak eta udalak antolatutako lasterketak egon ziren. Gu-nearen erabilerarako zenbait arau ezarri zituzten.



**GONZALEZ
DEKORAZIOA**
BARNE DISEINUA

San Juan kalea, 11
GERNIKA-LUMO
94-625 04 82
proyectos@gonzalezdecoracion.es

HIZER

ERAIKUNTZA · DISEINUA · DEKORAZIOA

STUDIO

Iparragirre 1 (tren geltokia) · 944360236 / 655749538 · info@hizerstudio.com
GERNIKA-LUMO



Naia Laso, Parisen dominarik gabe, baina txapeldun

BERMEO/ Olinpiar jokoetan, skate park modalitatean zazpigarren sailkatu zen Laso

Olinpiar jokoetako skate parkeko modalitatean finalera heltzea lortu zuen lehenengo euskalduna izan zen Naia Laso bermeotarra. 15 urteko gazteak dominarik ez zuen lortu, baina herritarren babes beroa eduki zuen, eta Bermeoko Udalak Nestor Basterretxea areto-

an ipinitako pantaila erraldoian ikusi zuten Pariseko lehia. Klasifikazio txandetan, skater bakoitzak hiru saiakera izanik, bermeotarrak bigarrenaren denbora barruan bukatzea lortu zuen, 82,49ko puntuazioa lortu. Horrela, sailkapen txandan lehiatu ziren 22 skaterretatik finalera pasatu ziren zortziren artean sartu zen.

Txanda horietan bizkarean min hartu arren, finala lehiatu zuen. Hiru saiakera eduki zituen skater bakoitzak, eta Laso lehenengo bietan jausi egin bazen ere, hirugarrenean denboraz

amaitu zuen, 86,28 puntu lortuta. Hala, ondo merezitako diploma olinpikoa irabazi zuen. Bermeotar gazteak adierazi zuen «gehiago» egin ahal izan zuela uste zuela; ez zuen gura zuena egiteko aukera izan, baina, hala ere, «pozik» agertu zen, eta babesa erakutsi eta animoak eman zizkiotenei «oso eskertuta» zegoela azpimarratu zuen.

Bestalde, Skate Parkeko Munduko Txapelketa lehiatu zuen irailean, eta hirugarren sailkatu zen. Hala, Munduko Txapelketa batean domina lortu duen lehen euskalduna bihurtu zen.



Gabriel Aresti eta Mundaka, ibilbide berean batuta

MUNDAKA/ Gabriel Arestik Mundakan igarotako denbora eta herriaren historia ulertze-ko ibilbide gidatua egin zuten, Edorta Jimenez mundakar idazlearen eskutik. Arestiren Mundaka eta euskararekiko zeukan miresmena gogoratu, eta haren istorio zein anekdotak entzun zituzten, baita herriaren inguruan idatzitako poemai buruz hitz egin ere, horien eduki zein teknika bereziak aipatuz.



Bermokiz Egun koloretsua ospatu zuten

ELANTXOBE/ Bermokiz Eguna ospakizunez bete zuten elantxobetarrek. III. Artzain Txakurren Lehiaketaren ostean, tortilla janaldian elkartu ziren, lehenengo tortillak txapelketara aurkeztuta. Herri bazkariaren ondoren, Obaneuke erromeriak zuzeneko musikagaz girotu zuen arratsaldea.

Mendatako Udala



94-625 47 22 www.mendata.eus

GAUR EUSKARA LANDUZ, ETORKIZUNERANTZI!

Isuki Irratia martxan jartzeko hitzarmena sinatu zuten

BERMEO/ Itsuki Irratia bueltatzeko hitzarmena sinatu zuten Bermeoko Udalak eta Kostarri Kultur Elkarteak. Izan ere, ia 37 urteko etengabeko jardueraren ostean, emisioa behin betiko etetea erabaki zuten 2022ko otsailaren lean, «ezin zutelako proiektu bidegarri batekin jarraitu». Ez zuten buelta horren datarrik iragarri, baina, itzulera «eraberrituta egingo» zutela jakinarazi zuten, formatu berri-tzaileagaz, baina betiere «lehenengo kutsua» mantenduta: «Hurbileko irratia izango da, euskalduna. Bermeotarrei zuzendutako programazioa zabaltzea izango da berriemaileen lehentasuna».



Kontxa eta Eusko Label Liga, Urdaibairentzat

BERMEO/ Errekorren liga izan zen Urdaibairena. Ligaren azken asteburuan Bermeoko eta Portugaleteko ikurrinak lortuta, hamalaurerkin, Castro eta Hondarribiaren errekorra hautsi zuten Bermeoko klubak. Bere hamargarren

liga garaipena izan zen, puntu marka berria ezarrita, gainera. Halaber, Kontxako Banderran bi jardunaldiak nagusitasunez irabazi zituen. Denboraldi historikoa ospatuz, arraunlariak zoriondu zituzten zaleek, Lameran.



44 postu, dantzak eta herri kirolak, azokan

MUXIKA/ Muxika, Ibarruri eta Gorozikako nekazari eta eskulangileen azokan 44 postu izan ziren. Baso-Txoritxu Dantza Taldekoen saioaren ostean, Iker Vicentek, Ugaitz Mugertzak, Udane Ostolazak, Olaia Esnaolak, Urdax Magunazelaiak eta Jon Laparanekek herri kirol erakustaldia eskaini zuten.



Belendizko Txokoak 25 urte bete zituen

ARRATZU/ Belendizko txokoaren 25. urteurrena «giro aparte-an» ospatu zuten. Aitor Etxebarriazarraga eta Asier Galarzaren bertsoekin hasi zuten eguna, eta Udax Magunazelaiak Uarka auzoko 196 kiloko *totxo*a lau aldiz altxatu eta errekorra ezarri zuten. 170 bizilagunetik gora batu ziren bazkarian.



**15. URTEURRENA
OUTLET**

MAHAI-TRESNAK, BAXERAK,
KRISTALERIA
SUKALDEKO ETA ETXEKO TRESNERIA
TXOKOENTZAKO TRESNERIA
FABRIKAKO PREZIOAK
%60 ARTEKO DESKONTUAK

15 URTE HERRIAREKIN

Plaza Saraspe, 3- Tel. 94 625 03 05 GERNIKA





inoxkea@inoxkea.com www.inoxkea.com

INOXIDABLEAK eta burdin lanak





Tel. 94 624 35 40 / Mug. 626 77 01 97
Okamika indust. 1 A pab. 1. Mod. / 48289 GIZABURUAGA



Euskal Kopa irabazi zuen Lointek Gernika Bizkaiak

GERNIKA-LUMO/ Bi urte eta gero, Euskal Kopa bereganatu zuen Lointek Gernika Bizkaiak, Beasainen. Lehiatutako bi partidak irabazi zituen; Araski nagusitasunez mendean hartu (84-64) zuen lehenengo, eta IDKri, berriz, 74-66 irabazi zion. Lucas Fernandez entrenatzaileak

leak Euskal Koparen balorazio «oso positiboa» egin zuen: «Bi talde desberdini aurre agiteko gai izan gara, gure estiloa galdu barik. Orain arteko lanak emaitza onak ekarri ditu, eta jokalariek ulertu dute bakoitzaren talentua taldearen mesedetan jarri behar dutela».



Sexu esplotazioaren kontrako jarrera

MUNDAKA/ Sexu Esplotazioaren eta Emakumeen Salerosketaren Aurkako Nazioarteko Egunean, irailaren 23an, elkarretaratzean batu ziren herritarrak eta udal ordezkariak, Mundakako plazan. Udalak herri mailan pareko egoere

rei aurre egiteko nahiz egoera horiek ekiditeko, erakunde mailako erantzuna hobetzeko hartua hartu zuen: «Emakumeen aurkako indarkeriaren legediak ezarritako betebeharrak herri eremuan beteko direla bermatu nahi dugu».

'Geure Atalaia kutune' horma irudia, baselizarako

EA/ Erramun Mendibelanda artistak *Geure Atalaia kutune* horma irudia sortu eta Eako Talako Ama baselizan jartzeko proposamena egin zuen. Bilboko gotzaingoak debekatu egin zuen baselizan kokatzea. Bozetoak Eskolondon aurkeztu zituen, «eliztarrak aurka agertu zirelako», eta sinadurak batu zituen. Portzelanazko horma irudia osatzen zuten lauzen bitartez, «itsasoko munduari omenaldia» egin gura izan zion artista eatarrak, baita itsasoan beharrezko ibilitakoei eta Eatik itsasoa sentitu zuten guztiei ere. 5 metro luze eta 6 metro zabaleko horma nagusia eskuz egindako 30×40 zentimetroko 240 lauzaz estaltzeko proposamena egin zuen, baselizaren horma zuriak jantzeko: «Horma zuriaren gainean kolore biziak forma ederretan marraztuta jartzea da proposamena. Izan ere, lauzak delikatuak da, ukitzeko gogoa ematen du, baina iraunkorra ere bada, datozen belaunaldikoek gozatu ahal izateko modukoa».



MUNDAKA.
Olatu bat baino askoz ere gehiago.
Euskal historia eta ondarea.
Tradizioak. Gastronomia...
Ezagutu eta gozatu ezazu!!!

MUNDAKAKO
UDALA



Rojas, bi dominagaz Munduko Txapelketan

BERMEO/ Alemaniako Mannheim hirian jokaturako Lur Gaineko Munduko Sokatira Txapelketatik bi dominagaz itzuli zen etxera Erika Rojas, Gaztedi Sokatira Taldeko tiratzaile bermeotarra. Zilarrezko domina Gaztedigaz lortu zuen, Txina Taipeiaren kontrako final «oso sufrituan», eta brontzekoa, berriz, Euskal Selekzioagaz, Suediaren kontra.



Sukarrieta Kanala Arraun Kirol Kluba, sasoian

SUKARRIETA/ Sukarrieta Kanala Arraun Kirol Klubaren eguna ospatu zuten, eta antolatzaileek balorazio «oso ona» egin zuten. Estropada eta erronka prestatu zituzten eta 20 tripulazio inguruk parte hartu zuten. Erlojupeko formatuan, Txatxarramendiko irlari buelta ematea izan zen erronka. Sukarrietan «arrauna berpizteko ilusioagaz» sortu zuten kluba, 2022an.



Zaldi mando eta kinttopenkoen hitzordua

NABARNIZ/ Garcia Alabak nagusi izan zen Nabarnizko Zaldi Mando Txapelketan, eta harengandik gertu ibili zen Jatetxe Nabarniz, alde estuagaz geratu baitzen bigarren. Bestalde, Angel Txertudi busturiarrak irabazi zuen Kinttopeko Txapelketa, eta Ibekehondo aulestiarren atzetik hirugarren sailkatu zen Jatetxe Nabarniz.



Antoliñako kobaren barren-barrenetik

GAUTEGIZ ARTEAGA/ ADES Espeleologia Elkarteagaz elkarlanean, Gautegiz Arteagako Udalak Antoliñako kobara irteera antolatu zuen. Hasteko, 10 m-ko bertikala jaitsi zuten, eta sarrerako bertikalaren oinarrian, 60 m luzeko, 40 m zabaleko eta 15 m-ko altuerako areto nagusia bisitatu zuten.

ÍZARO

Izaroren zure produktu gogokoak
online eska ditzakezu

Etxez etxe
banatzen dugu

www.izaroirishpub.com

harategia

IZASKUN

Juan Kalzada, 58 GERNIKA-LUMO 94-625 11 66



Autorik Gabeko Egunean, bidegorriaren eskaera

MUXIKA/ Autorik Gabeko Eguna probestuz, Urretxindorra herri eskolako komunitateak deituta, Kurtzero auzunea eta Gernika-Lumoko herrigunea komunikatuko lituzkeen bidegorriaren eskaria kaleratu zuten. Kurtzerotik Araneraingo joan-etorri egin zuten bi-

zikletekin eta gero ginkana ere izan zuten. Era berean, Ekoetxea Urdaibaik, Bermeoko Ziklistek, Aixerrtape Txirringulari Elkarteak eta Basati Bike-ek ere Autorik Gabeko Eguna-gaz bat egin zuten, elkarlanean bi bizikleta-ibilbide antolatuta.



350 kirolari, Mendata ezagutzen

MENDATA/ Julen Aranguena eta Leire Martinez nagusitu ziren Mendata Ezagutuz mendi maratoian. 350 mendizale inguru elkartu ziren, lau ibilbide «ikusgarriez» gozatzeko (42, 37, 21 eta 9 km-koak). Proba «egonkortuta eta finkatuta» zegoela nabarmendu zuten.



Arrantza lehiaketa, Teilerian

MURUETA/ 63 arrantzalek parte hartu zuten Muruetako XI. Arrantza Lehiaketan-2022an berreskuratu zuten-. «150 pertsona inguru elkartu ginen, giro ederrean». Foruko Ehiza eta Arrantza Urdaibai elkarteak Muruetako Udalgaz lankidetzan antolatu zuten.



3.344 euro, kirol egokitua bultzatzen jarraitzeko

GERNIKA-LUMO/ Barbero Solidario elkartean jaiak bizar eta ile mozketez gain, denetariko ekin-tzez bete zuten Gernika-Lumoko Industria kalea, laugarrenez. 3.344 euro lortu zituzten, kirol egokitua bultzatzen jarraitzeko, hau da, Haszten elkarteari laguntzera bideratu zuten. Kirol egokituaren eta inklusiboaren aldeko elkartasun festaren laugarren aldia, ordura arteko «arrakastatsuen» izan zela azpimarratu zuten.



Euleuk Jaia, elkar ezagutzeko eta loturak estutzeko

GERNIKA-LUMO/ Euleuk Jaia ospatu zuten Astran. Aurkezpen, hitzaldi, azoka, talde bazkaria eta senegaldar borrakaren erakusketa egin zituzten, eta Senegalgoek eta bertokoek euren arteko harremanak estutu zituzten. Besteren artean, Euleuk Elkartearen zein euren proiektuen berri eman zuten.



MURUETAKO
UDALA

Kanpantxua auzoa, 3
Tlf.: 94-625 24 51
udala.murueta@bizkaia.org



www.murueta.eus

euskararen
alde!



Bustenkobaren hirugarren sarrera aurkitu zuen ADESek

KORTEZUBI/ ADES Espeleologia Elkarteak Kortezubiko Bustenkobaren «hirugarren sarrera bat aurkitu» zuen. «Bost orduko esplorazio eta topografia saioaren ostean, bi inkognita gelditu dira esploratzeko, haietako bat haize korronte sendoagaz. Kanpaina indartsu bat daukagu Kortezubin, Oma, Basondo eta Atxondo inguruak esploratzen», azaldu zuten.



«Izugarrikeriaren kontrako» oihua ozen entzun zen

BUSTURIALDEA/ Palestinako genozidioa salatzen eta erakundeei Israelekin harremanak erabat eteteko eskatuz, elkarretaratzeetan batu ziren ehunka herritar Bermeon, Busturian, Ean, Foruan, Ibarrangelun, Gernika-Lumon, Mundakan eta Nabarnizen.

Palestinarrak berehalako su etena behar zutela aldarrikatu zuten. Minutu bateko isiluna ere egin zuten, Gernika-Palestina Herri Ekimeneko kolaboratzailea izan zen Mahasen Al-Khatib gazte ilustratzailearen hilketa salatzen.



Etxeko langileen eskubideen aldeko mezua

GERNIKA-LUMO/ Etxeko langileentzat eskubideak eskatzeko eta «kale gorrian» gelditzeko arriskuan zegoen etxeko langile bati elkartzuna adierazteko mobilizazioa deitu zuen LAB Sindikatuak. Etxeko eta zaintzako langileek beren lan-baldintzak arautzeko esparrua izatea exijitu zuten.



Atef Abu Saif palestinarra, Busturialdean

BERMEO/ Atef Abu Saif idazle, politologo eta Palestinako Aginte Nazionalako Kultura ministro ohiak Busturialdea bisitatu zuen. *Don't Look Left. A Diary of Genocide* liburua aurkeztu zuen Bermeon, eta Gernika Memoriaren Lekuko plataformakoekin Memoriaren ibilbidea egin zuen Gernika-Lumon.

joana
OSAGARRIAK ETA OPARIAK

Barrenkale Barrena, 2 • 94-625 71 55 • GERNIKA-LUMO

Landatxu Ikastegia

Tels.: 626446420 / 669738653
mai.b.i@hotmail.com
Ongintza kalea z/g. Bermeo

626.446.420 / 669.738.653
L.H eta D.B.H

Lehen Hezkuntza • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Talde murriztuak • Udan ere errefortzu klaseak

Fiskaltzaren 14 urteko kartzela zigor eskaera, Lopezentzat

GERNIKA-LUMO/ Fiskaltzak 14 urteko kartzela zigorra eskatu zuen Mario Lopez saskibaloi entrenatzaile ohiarentzat, baita hamar urtez biktima bizi den herrira bertaratzeko debekua ere. Halaber, epaiketara Bizkaiko Auzitegian urtaririlaren 14tik 16ra egingo zela jakin zen. Lopez 2022an salatu zuten, eta 2023ko abenduan –Gernika KESB klubeko kirol arduraduna zen– jakin zen bere aurkako salaketa zegoela, 1998ko uztailetik 2001era, 13 urteko neska bati sexu abusuak egitea leporatzen ziona. Lopezek garai hartan entrenatzen zuen saskibaloi taldeko kidea zen biktima, lehenengo Allende Salazar Herri Ikastetxean, eta gero, Gernika KESBn; eskola komunitateak berehala gaitzetsi zuen entrenatzaile ohiak adingabeari egindako sexu eraso, eta Gernika-Lumoko Sare Feministak deituta manifestazio jendetsua egin zuten. Erasoak hasi zirenean, erasotzaileak 31 urte zituen, neska baino 18 gehiago. Gernikako epaitegian jasotako salaketaren arabera, «sexu abusuak jasan zituen biktimak, eta mehatxuak ere etengabeak izan ziren, baita bere gaineko kontrola ere. Salaketak zioen bortxatu egin zuela, eta felazioak egitera behartu ere bai».



Urdaibaiko Guggenheim proiektuari «ez eta ez» esanez

GERNIKA-LUMO/ Guggenheim Urdaibai proiektua gelditzeko eskatu zuten mobilizazioetan

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak deituta, milaka herritarrek Gernika-Lumoko kaleak hartu zituzten, manifestazio jendetsuan. Eskaera zuten eta zehatza egin zieten administrazio publikoei zein agintariei: Urdaibairako zeukaten Guggenheimaren proiektua bideragarri bihurtzeko eginen ari ziren pauso administratiboak eta ekonomikoak biharamunean bertan gelditzea. «Ez alferrik erabili diru gehiago etorkizunik ez

duen proiektua bideragarri eginen. Guggenheim Urdaibai sekula ez da bat etorriko herritarren eta naturaren beharrezanekin. Hemen dago herria, ikusi eta entzun nahi duenarentzat. Atzerapausoa ematen jakin behar da. Proiektu hau fundazio pribatu baten ekimenez eta haren neurriarekin eginda dago, eta haren gurariak asetzeari du helburu. Guri prekaritatea bes-

terik ez digu ekarriko», esan zuten. Atxikimendu asko jaso, eta aurreikuspenak gainditu zituztela azpimarratu zuten plataformakoek. Bestalde, Gernika-Lumoko Gazte Asanbladak Ikasle Greba eta kanpaldia deitu zituen; Pasealekuan bildu ziren, eta Ikamak deituta, ostera, elkarretaratzeak egin zituzten hezkuntza zentroetan.



Egin nirekin ere euskaraz!



MUXIKAKO UDALA
Muxika, Gorozika eta Ibarruriko herriak
"Hiru herri udalerrri bat"



Euskal dantzak eta herri kirolak, Euskal Jaian

AJANGIZ/ 70 lagun ingururen aterpe izan zen Kanpantxuko Euskal Jaia. Umeeek euskal dantzen erakustaldia egin zuten, eta gero, baserri ziren, dantza, musika eta jan-edan artean, Kittu elektrotarangako kideek lagunduta. Arratsaldean, berriz, herri kirol parte hartzaileen saioan ondo pasatu zuten, Sustabiz Fundazioaren kirolarien eskutik.



Alluitz de Bilbao eta Paul Ormaetxea, nahieran

EREÑO/ Alluitz de Bilbao kortezubitarrak eta Paul Ormaetxea muruetarrak beren legea ezarri zuten 39. Ereñozarrera Igoeran. Hemeretzi gizonzok eta hamabi emakumezok egin zuten Ereñoko herrigunea eta Ereñozar mendi gailurreko San Migel basiliza arteko lasterke-ta. Igoera Herrikoien Ligaren azken-aurreko proba izan zen.



Baso-Txoritxuren ibilbidea gogoratzen

MUXIKA/ Baso-Txoritxu Dantza Taldearen ibilbidea errepa-satu zuten Ibarruriko Dantzari Egunean. Dantza ekitaldi nagusiaz gain, herri bazkaria, zirku tailerra, erromeria eta play-back txapelketa eduki zituzten, egun osoko egitarauan. Ametsak dantzan jartzen jarraitzeko aldarria zabaldu zuten garai bateko zein orduko taldekideek, elkarrekin dantzatu.



Landa eremuko emakumeei aitortza

MUNDAKA/ Landa eremuko emakumeen azoka egin zuten lehenengoz, Mundakan, «emakumezkoek landa munduan eduki izan duten garrantzia goraiatzeko eta kaleratzeko asmoz». Artisanu zein nekazarien postuetan, denetarikoko produktu ekologikoak probatzeko eta erosteko aukera izan zen.



LANPYME

Enpresa aholkularitza

Zure enpresak behar duena Informa zaitez!



- ✓ Fiskala
- ✓ Laborala
- ✓ Kontablea
- ✓ Finantza aholkularitza
- ✓ Dirulaguntzen azterketa eta tramitazioa

Don Tello, 15 behea GERNIKA-LUMO • 94-465 00 93 • info@lanpyme.com



ON EGIN DAGIZUELA JANAK ETA KALTERIK EZ EDANAK. ONDO OSPATU JAIK!

LAPIKOTE

BASERRIKO PRODUKTUAK

Elorriaga auzoa, 10 • KORTZUBI • 680 18 81 70



Urteko astelehen berezienak, jendez lepo

GERNIKA-LUMO/ Piriniotar Abelburuen Euskadiko 37. Txapelketa lehiatu zuten Urriko Lehenengo Astelehenean, eta Jon Koldo Bikandirenak izan ziren abelbururik onenak. Ganadutegi onenaren saria jasotzeaz gain, ar eta eme onenaren sariak ere jaso zituen Bikandik, helduen kategorian.

Urriko Azken Astelehenean, berriz, Arabako Larrabe gaztandegiak jaso zuen gazta onenaren saria. Kanala Beach jatetxeak enkanteko errekorra hautsi zuen: 8.000 eurotan erosi zuen lehen postuagelditu zengazta erdia. Udalaren datuen arabera, 90.000 herritarren topaleku izan zen azoka.



Hamargarrenera heldu zen

BERMEO/ Zortzi egunez, hamar ekitaldigaz ospatu zuten Mareak Jaialdiaren hamargarren aldia. Antolatzaileak «pozarren» agertu ziren, oso arrakastatsua izan zelako, beste behin, eta «adin desberdinetako jendea» batu zutelako.



Gaztainak batzeko eguna

GAUTEGIZ ARTEAGA/ 38,5 kilo gaztaina batu zituzten Gaztañerre Egunean, Atxarre inguruetan. Beste urte batez, Montorrealde Guraso Elkartearen deia «giro sano eta ederrean» erantzun zioten herritarrek.



Arratzuko Herri Martxa berreskuratu zuen Egigunek

ARRATZU/ Hiru hamarkadaren ostean, Arratzuko nagusi, gazte eta umeez elkarregaz eman zituzten berreskuratu-tako Herri Martxako pausoak, belaunaldi arteko transmisioa sustatuz. 95 lagunengatik izan zen. 12 km-ko ibilbidea osatuta, Muruetaraino joan ziren. Herri ariketa «oso polita» izan zela eta errepikatzeko gogoia eta indarra zituztela esan zuten Egigun taldekoek: «Jendea oso pozik ibili zen».



Eibar-Nabarniz mendi ibilaldia, eguraldi gogorari aurre egiten

NABARNIZ/ 48. Eibar-Nabarniz mendi ibilaldia hamar pertsonak egin zuten. Ibilbide osoan zehar, euria eta tenperatura hotzak eduki zituzten. «Jardunaldi gogorra eta luzea izan zen; dena dela, giro aparta nabarmendu zen», adierazi zuten Athletic Nabarniz Elkarteko kideek. Ohitura mantenduz, ibilaldia amaituta, talde bazkarian batu ziren.



Nabarnizko Udala

Herri euskalduna

tf.: 94-625 50 77

Adineko pertsonen bakardade ez hautatua, erdigunean

BERMEO/ Bermeoko Udalak nahi ez den bakardadeari aurre egiteko Erdu Geugaz programa jarri zuen martxan, «nagusiek nahi ez zuten bakardadeari aurre egiteko asmoz. Bakarrik sentitzen ziren adinekoak harremanetan ipini zituzten, eta hamabi saio egin zituzten. Arlo edo gai hauek jorratu zituzten: aldatetara egokitzea eta berregituratze kognitiboa, gizarte gaitasunak, gogoko ekintzak, Gorputza Martxan programa eta gatazka eta oztopoak nola konpondu. Gainera, Demiku Jubilatuen Elkartera, liburutegira, musika eskolara eta Erroxape Elkartera bisitak egin zituzten.



Juristak, Palestinarako neurri koordinatuak eskatzen

GERNIKA-LUMO/ Gernika-Palestina Deialdi Herritarrak, Yala Nafarroak eta The European Association of Lawyers for Democracy and Human Rights elkarteek antolatuta, Palestinaren aldeko lege borroka – Errokkak eta aukerak izeneko nazioarteko jardunaldi juridi-

koen lehen saioa egin zuten Bilbon, eta partaideek Gernika-Lumo bisitatu zuten. Palestinan justizia berrezartzeko berehalako neurri koordinatuak eta Nazioarteko Justizia Gortearen 2024ko irailaren 18ko Ebazpena berehala aplikatzeko eskatu zuten Gernika-Lumotik.



Lagako lanen kontrako protesta jendetsua

IBARRANGELU/ Kostaren eta Itsasoaren Espainiako Zuzendaritza Nagusiak aginduta, hareatzako bi dunak biltzeko eta pasarela eraikitzeko lanak hasi zituzten. Udalak ez zuen jakinarazpen ofizialik jaso, eta herritarren artean haserrea eragin zuen. Lanen kontra 1.000 herritar inguru batu ziren elkarretaratzean.



Prostatako minbizia ikusarazteko erronka

BERMEO/ Bizkaiko Minbiziaren Aurkako Elkarteak Bizkaia Bike Minbiziaren Aurka antolatu zuen lehenengoz, eta Matxitxako TKTkoek bat egin zuten. Bermeon hasi eta amaitu zuten 130 km-ko ibilbidea, prostatako minbizia ikusarazteko helburuagaz. Bermeoko Ziklistek ere eurekin osatu zuten ibilbidea.

LS REFORMAS

BAINUONTZIA DUTXAGATIK ORDEZKATZEN DUGU ARIN, GARBI ETA ZIURTASUN ETA BERME GUZTIEKIN

Ordu libeli jentetan

- BAINUGELEN ERREFORMAK
- ALTZARIAK
- DUTXA-ITXITURAK (manparak)
- OSAGARRIAK

659 493 388
lisuruelab2@gmail.com
San Juan 25 - 48300 GERNIKA

LUR ESTUDIO INMOBILIARIO S.L.U.

94-625 30 45 // 94-625 30 44
lur@lurgernika.com
Artekale, 16 - behea · GERNIKA-LUMO

Jai zoriontsuak eta urte berri on!



Ardurak hartzeko unea dela esan zuten

BUSTURIALDEA/ Erantzukizunak eta konpromisoak hartzea eskatu zuten herriz herri, Azaroaren 25ean

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean, indarkeria matxista «egiturazko arazoa» dela gogoratu, eta gaitzespen irmoak hartu zituen eskualdeko kaleak eta plazak. Ardurak hartzeko eta lanean segitzeko konpromisoa izatearen garrantzia azpimarratu zuten. Bestek beste, arreta berezia jarri zieten «ultraeskuinak bultzatuta sortu ziren diskurtso ukatzaileei, eta nega-

zionismoa arazo globala» dela adierazi zuten.

Beste behin, benetako konpromiso politikoa eskatu zieten alderdi eta erakunde guztiei. «Joera neomaxistak gero eta gehiago zirela» ere esan zuten, batez ere mutil eta gizon gazteen artean eta adin ertainekoengan, eta bereziki eremu digitalean.

Bestek beste, Diamou Bermeo Elkartekoek udalerrian lasai bizi eta etxebizitzarako sarbidea nahi dutela aldarrikatu zuten, horiek eskuratzeko traba arrazistak ezabatzea eskatuz. Gernikako Sare Feministak deituta, berriz, umeenganako indarkeriaren aurrean, entzun eta erantzuteko beharra zabaldu zuten.



DANONA
DANONTZAKO
DANOKAZ
AUKERA
BERDINTASUNA
SUSTATUZ



AMARA BERRI
SISTEMA



HEZKUNTZA
KOMUNITATEA



INKLUSIOA ETA
KOHESIOA



KALITATE
PEDAGOGIKOA



Allende Salazar

Herri Eskola



Natxitu bizi eta bizigarri egiteko eskaintza

EA/ Beste urte batez, azaroa eskaintzaz bete zuten Natxituko Jai Batzordeak. Stand Up ikuskizuna, Haizeder Trail, italiar txo-txongilo emanaldia, Lapatzan ibilbide gidatua, mus txapelketa, bertso afaria, talo jana... Hamar ekintza antolatu zituzten, eta «oso arrakastatsuak» izan ziren. Jai batzordekoen hitzetan, azken urteetako «egitaraurik aberatsena» izan zen.



Foruko Sokatira Taldea, lehenengo tiraldiekin

FORUA/ Foruko Sokatira Taldea sortu zuten: adin desberdineko herritarrek osaturiko sokatira talde mistoa. Ikasteko eta arerio-enganetik ahal beste ikasteko asmoz, Goma Gaineko Bizkaiko Txapelketan parte hartu zuten. Era berean, herriko plazetan sokatira erakustaldiak egiteko gogoz agertu ziren.



Enbeitak jantzi zuen eskuldeko txapela

BUSTURIALDEA/ Onintza Enbeitak, Iker Uriartek, Asier Galarzak, Lurdes Ondarok, Koldo Gezuragak, Aitor Etxebarrizarragak, Janire Arrizabalagak eta Ibai Amillategik jokatu zuten Busturialdeko Bertsolari Txapelketaren finala, Astran, eta Enbeitak jantzi zuen txapela. Muruetan, Belenditzen eta Errigoitin lehiatu zituzten kanporaketak.



Dantza taldeak saretzeko hitzordu handia

BUSTURIALDEA/ Busturialdeko dantzari nagusien topaleku izan zen Busturia. Bakioko eta eskualdeko taldeetako 160 dantzari batu ziren Altamiran, «giro itzelean». Herriko Irrintzi Alai taldeak antolatu zuen, eta Artie dantza taldeak hartu zuen lekukoa, 2025eko antolaketakarako: «Taldeak elkar saretzeko eguna da».

 **Occident**

**AUTOAK, ONTZIAK, ETXEBIZITZAK,
ENPRESAK, PARTIKULARRAK,
BIZITZA ASEGURUAK, INBERTSIOAK...**

Fernando Izaguirre

Eskoikiz, 6 - BERMEO

94-618 70 99 - egondra@segurosbilbao.com

barne diseinua_berritze lanak

olaeta

gremioen arteko koordinazioa

656 745 004 juan kaltzada 12 gernika-lumo



Kultur Dibertsitatearen Jaia, aurreikuspenak gaindituz

BUSTURIA/ Herriko aniztasun kulturala «handitu eta indarberritzeko asmoz», Auzholan Kultur Elkartek lehenengoz antolatu zuen Busturiko Kultur Dibertsitatearen jaia, eta aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Euskal Herriko, Errumaniako, Brasilgo, Saharako,

Poloniako, Argentinako eta Galiziako taloak dastatu zituzten. Herritarren erantzunagaz «oso pozik» agertu ziren: «Itzela izan zen, jaiak bere lekua egin du; jendea oso gogotsu etorri zen». Sareak sortzearen helburu gogotik bete zutela azpimarratu zuten antolatzaileek.



Elikadura burujabetza hizpide

GERNIKA-LUMO/ Udalbiltzak eta EHNE Bizkaiak antolatuta, *Elikadura sistemak iraukortzen*, elikadura burujabetzari eta tokiko elikadurari buruzko topaketa hartu zuen Astrak. Hitzaldi, esperientzia txoko eta mahai-inguruan batu ziren.



Bertokoa, bertatik bertara

EA/ Tokiko produktuak dastatzeko eta eros-teko aukera egon zen, Eako Bertoko Azokan, eta Eako bigarren Putxera Llehiaketa egin zuten. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak ere postutxoak jarri zuten.



Zarrabentako Gazte Eguna ospatu zuten lehenengoz


MENDATA/ Zarrabentako Gazte Egunak harrera «bikaina» izan zuen, eta hurrengo urtean errepikatzeko asmoa agertu zuten. Mus txapelketa, Aitor Etxebarriazarraga eta Ibai Amillategigaz bertso saioa eta Eingo eta Dj Domin izan ziren. Helburu nagusia bete zuten: jai giroa gazteena bakarrik ez, «mendatarrena izatea». Eguna antolatzeko izandako elkartasun eta laguntza eskertu zituzten.



Nuntxakuren hogeiterturteko ibilbide oparoari aitortza

BERMEO/ 2004an sortutako Nuntxaku Kultur Elkartearen urteurrena ospatu zuten zapatuan, Kapillan. Eguneko egitaraua prestatu zuten, eta adin guztietako «jende pilo» bertaratu zen. Azoka ipini zuten, eta Nabasi talde zarautzarrak eta Aizoo herriko taldea gonbidatu zituzten. Etxekoentzat euren lehen diskoaren estreinaldia izan zen.

BERMEO - SAN FRANTZISKO HERRI IKASTETXEA
ATALDE KALEA, 2/G
94 688 05 77
www.bermeokoeskolapublikoa.com





Gabon azokak egin zituzten Bermeon eta Mundakan

BUSTURIALDEA/ Bermeoko Udalak eta Bertan merkataria elkarrekin antolatuta, Gabon Azoka Bermeotarra egin zuten bigarren urtez, herriko merkatarien lanari balioa emateko helburuagaz. Bestalde, Mundakako Gabonetako Azokaren «bilgune izaera» azpimarratu zuten; herritarrak Gabonak orduko elkartzeko funtzioa bete zuten azokak, eta kalitate handiko produktuak erosteko aukera eduki zuten.



BI-3215 errepideko lanak amaitu zituzten

BUSTURIALDEA/ Hamabost hilabeteren ostean, Busturia eta Murueta arteko sarbideak berrantolatze lanak amaitu zituzten BI-3215 errepidean. Lanekin errepidearen zein oinezkoen segurtasuna hobetu zuten San Kristobalen. BI-3215 errepidea San Kristobal

auzotik igarotzen zen tartean bidearen segurtasuna hobetzea, trafikoa baretzea eta Muruetan amaitzen zen bidegorriaren jarraitutasuna bermatzea izan ziren obraren helburuak, baita eremu horretako oinezkoentzako ibilbideak optimizatzea ere.



58 korrikalari, kartzada gogorrean

ELANTXOBE/ Alluitz de Bilbao kortezubitarrak eta Paul Ormaetxea muruetarrak irabazi zuten V. Kartzadan Gora; 58 korrikalarik parte hartu zuten. Kartzada Txiki ere egin zuten umeez. II. Igoera Herrikoien Ligako azken proba izan zen, eta Irati Zabala eta Xuban Munozguren markina-xemeindarrak nagusitu ziren ligan.



Recisil proiektua, enpresa ideia onena

BUSTURIALDEA/ Busturialdeko XI. Enpresa Ideia Lehiaketara hamalau enpresa ideia aurkeztu zituzten, eta Asier Martinezen Recisil proiektuak jaso zuen sari nagusia; silikonak birziklatzea proposatzen zuen. Yon Cañonen eta Eder Solarren Vacaciones adaptadas proiektuarentzat izan zen bigarren saria.

Gure herriko produktua.

FRUTAS PINILLA, S.L.

Banaketa,
Busturialdean eta Lea-Artibain!

DENDA: San Bartolome, 1
94-625 84 05

BILTEGIA:
Txaporta industrialdea, 3
94-625 77 06
GERNIKA-LUMO
frutaspinilla@gmail.com

FRUTAS ISABEL

Juan Kartzada, 12
Gernika-Lumo
94-625 13 48

SanFidel
kastola Gernika-Lumo

Bisita gaitzazu:
www.sfidelikastola.com
946250980

Maitasunez landatuz,
emozioz hazi



Euskara ortzimuga, herritarrek iparorratz

BUSTURIALDEA/ Euskararen Eguneko ekime-
nez bete ziren Busturialdeko kale, areto zein
plazak. Hitzaren etorkizuna ehuntzearen al-
deko apustua egin zuten. Euskararen «ha-
riak txirikordatu» egin behar zirela aldarri-
katu zuten. Kolektiboaren esangura azpima-

rratu asmoz, euskarak «hurrengotaratzear-
ren katebegileak» behar zituela adierazi
zuten: «Euskararen ehundegian ekina da ja-
rraipena, ekina da artez bizirautea; erakun-
de publiko, elkarte, langile eta etxe-
koen ekin. Euskarak mugimendua behar du».



Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko helburuz

BERMEO/ Bermeoko kaleetan
euskara «gero eta gutxiago»
entzuteaz arduratuta, Etxalak
Bermeoko Euskera Taldie sor-
tu zuten herriko gazteek. Tal-
deagaz bat egiteko deia egin
zieten gazte bermeotarrei, sa-
retzea ezinbestekoa zela iritzi-
ta: «Kaleak ostera ere euskaraz
apainduko ditugu. Datuak age-
rikoak dira, eta kalera irtetea
nahikoa da egoera larriaz kon-
turtatzeko; jendea erderaz ba-
karrik entzuten dela agerikoa
da».



Inhar Urruzuno, Bizkaiko txapeldun

ARRATZU/ Inhar Urruzunok Bizkaiko Harri-Jasotze Txapelketa
poltsikoratu zuen, Arratzun. Ondarrutarra nagusi izan zen lehia-
keta osatu zuten hiru jardueretan. Beretzat Bizkaiko bederatzigar-
ren txapela izan zen. Jon Gisasola Zelai mallabiarra bigarren eta
Eneko Bilbao kortezubitarra hirugarren sailkatu ziren.



Sustabiz, herri kirolak «herritartzen»

GERNIKA-LUMO/ Sustabiz Fundazioaren II. Harri-Jasotze Txa-
pelketa 21 kirolarik lehiatu zuten. Emakumezkoen lehian, Lei-
re Astoreka gernika-lumotarra gailendu zen. Gizonezkoen
maila absolutuan, Ibai Lopez elorriarra izan zen nagusi, eta 80
kilotik beherakoan, Unai Ortega bermeotarra.

uribe
funeraria

Bulegoak:
Juan Kaltzada, 8 • GERNIKA-LUMO
tf.: 94-625 00 85 / faxa: 94-465 34 08

Tanatorioa:
Goikoibarra industrialdea,
30-15B eta 16B pab. • GERNIKA-LUMO

Krematorioa:
Basokoetxe industrialdea, 4 • ISPASTER

info@funerariauribe.com · www.funerariauribe.com

TORREVIEJA EDO INGURUKO ETXEA SALDU NAHI DUZU?



DEITU ASIERRI
651 77 40 35
655 30 32 42

*Zure etxebizitza
esku onetan!*



ALAS CASAS
— I N M O B I L I A R I A —

- ✓ BULEGOA TORREVIEJAN
- ✓ BIZI ZAREN LEKUAN ELKAR EZAGUTZEKO AUKERA
- ✓ KONPROMISORIK GABEKO AHOLKULARITZA
- ✓ KONFIANTZA, LASAITASUNA, PROFESIONALTASUNA



www.alascasas.com